bizimoduba zer dan
aisa dakigu len,
Habana'n sobran dana
ez balitz falta emen.*

(Según nos cuentan, estos largos viajes nos enseñan a vivir el mundo; sabemos desde siempre qué es la vida, si no fuera que en La Habana sobra lo que nos falta aquí). Se cruza el charco en busca de la prosperidad («Ameriketara joan nintzan xentimorik gabe...»), pero a veces el emigrante tropieza con la picardía y aun la falta de escrúpulos de los organizadores de los viajes, como sucedió con los trescientos vascos que embarcaron en el «Patagonia» y fueron conducidos con engaño al desierto, a trabajar entre los indios. Por todo ello, «El eco de San Sebastián» organiza una fuerte campaña que sirva de aviso a los nuevos emigrantes y denuncia de los traficantes. Como nos lo señala Antonio Zavala, el diario donostiarra incluía en su periódico un anuncio que rezaba: «*Vaya cada cual donde quiera, pero no vaya infamemente engañado*». El diario se publicaba en castellano y el aviso no debía de entenderlo parte de la población proclive a la emigración, por lo que decidieron publicar una página en euskara, con el logotipo de «Erne euskaldunak».

Nostalgia ultramarina

Si la nostalgia por el País abandonado era una constante en los versos de Iparragirre o de Otaño, esa misma nostalgia se refleja en prácticamente todos los versos recopilados por Antonio Zavala bajo el título genérico de «Ameriketako bertsoak». Esa nostalgia canta siempre el ansia de volver, así como idealiza el País que se dejó atrás. Otaño confiesa que el ombú bajo el que se resguarda le recuerda siempre «el nogal de larga sombra» que abandonó en su caserío natal:

*Nere lagunik maitatuena
Ombu laztana zu zera,
argatik nator zure kolkora,
ni malkuak isurtzera,
iduriturik naramazula
atariko intxaurpera...*

(Tú eres, ombú querido, mi amigo más preciado, por eso acudo a tu sombra a secar mis lágrimas, porque imagino que me llevas al cobijo del nogal paterno...)

Emigrazioaren testuinguru honetan ezin ditugu ahaztuta utzi gure olerkari eta bertsolariak: Iparragirre eta Otaño. Ezagunak dira Iparragirreren *Amerikatatik Urretxuko semeei* edo Otañoen *Lagundurikan danoi*. Jose Manterolak idatzitako kantutegi sonatu batean *Agur!* eneko bertso bat jaso zuen, eta laugarren ahapaldian argi eta garbi azaltzen zituen emigratzeko zer funtsezko arrazoi izan zituen:

(Esaten dutenez, mundua bizitzen laguntzen digute bidaia luze hauek; lehendik bagenekien bizitzea zer zen, Habana sobran dutena ez balitz hemen falta).

Oparotasunaren bila zeharkatzen zuten putzua *Ameriketara joan nintzan xentimorik gabe...*, baina emigranteak zenbaitetan bidaien antolatzaileen txarkeria eta eskrupulurik eza topatu behar izaten zuten, *Patagonian* ontziratu ziren hiru ehun euskaldunekin gertatu zen bezala: engainaturik basamortura eraman zituzten, indioekin lan egitera. Horregatik, *El eco de San Sebastián* egunkariak kanpaina gogor bat antolatu zuen hurrengo emigranteak jakinaren gainean jartzeko eta trafikatzailerak salatzeke. Antonio Zabalak adierazi zigun bezala, Donostiako egunkariak bere orrialdeetan iragarki bat sartu zuen esanaz: *Vaya cada cual donde quiera, pero no vaya infamemente engañado*. Egunkaria gaztelaniaz argitaratzen zen eta emigrazioarako joera zuen biztanleriaren zati batek ulertuko ez zuenez, orrialde bat euskaraz idaztea erabaki zuten. «Erne euskaldunak» jartzen zuen logotipoak.

Itsasoz haraindiko herrimina

Herria utzi izanaren herrimina etengabekoa bazen Iparragirreren eta Otañoen bertsoetan, herrimin bera antzematen da Antonio Zabalak «Ameriketako bertsoak» izenburu generikopean bildu zituen ia-ia bertso guztietan. Herrimin horrek itzuli nahia du kantatzeko gai eta beti atzean utzitako herria du idealizatzen. Otaño aitortzen duenez, itzala ematen dion onbuak bere jaiotetxean, baserrian, utzi zuen «itzal luzeko intxaurrondoa» oroitarazten zion beti:

Zu zara, onbu maitea, nire lagunik preziatuena, horregatik nator zure itzalera malkoak xukatzeraz, etxeko intxaurpera naramazula iruditzen baitzait).

Pero cuando llegan las últimas campanadas tanto para la Cuba que conoció Andueza como para el resto de los reductos imperiales de España, surgirá entre nosotros un bersolarismo más beligerante como lo demuestra la colección «Kuba'ko gerra» recopilada por Antonio Zavala. Aunque resulte novedoso para el lector en esta suerte de versos aparecen idénticos motivos para el pesimismo, similares causas para la crítica que en la obra de los más renombrados mentores de la llamada generación del 98. Tal como se nos dice en unos versos publicados en Tolosa el año 1896, «*España daukagu txit errukarriya, dituben lur-apurak, galdu ditu iya*» (Tenemos a España en la postración, ha perdido casi las pocas colonias que le quedaban).

Toda la culpa de la situación lo tiene una nueva ideología: «*Madarikagarrizko liberalkeriya, zu zera gauza oien etsai galgarriya*» (Maldito liberalismo, tú eres enemigo enconado de todas esas cosas). Nuestros bersolaris ya no pueden repetir aquello de que «lo que sobra en La Habana nos falta allí». Elías Gorostidi lo tiene muy claro, cuando enfrentado a la monarquía y reivindicando la república, augura el final de la contienda: «*Geienak ill ta Kuba'n gelditu, gutxi biurtu etxera*» (La mayoría morirá y quedará en Cuba, pocos regresarán a casa).

Por lo que se ve, la situación anímica de los escritores del 98 no es desconocida para nuestros bersolaris más humildes. Tanto Unamuno como Baroja, creemos, participaban de una corriente común, muy extendida en la época.

El mar romántico de Baroja

Baroja lo tiene presente cuando escribe sus novelas centradas en el mar, pero el novelista recuerda también la valentía, el coraje y la arrogancia de los marinos de épocas anteriores. Toda la obra barojiana se sitúa en una coordenada que oscila entre la nostalgia, la realidad y la resignación rebelde. Cuando Shanti Andia comienza a escribir para ordenar sus peripecias, lo vemos sumido en esa nostalgia resignada: «*Las condiciones en que se desliza la vida actual hacen a la mayoría de la gente opaca y sin interés (...). La generalidad de los hombres nadamos en el océano de la vulgaridad. (...) Yo, en cierta época de mi existencia, he pasado por algunos momentos difíciles, y el recordarlos, sin duda, despertó en mí la gana de escribir*». Shanti Andia se ve obligado a vivir en una sociedad que no le suscita ningún interés pero el recuerdo, la nostalgia por el mundo perdido le llevan al acto creativo de la escritura. Aunque hayamos de considerar a Pío Baroja como un claro exponente de escritor realista, sus novelas centradas en el mar tienen un gran encanto romántico. Lo confiesa el propio Baroja en «El laberinto de las sirenas».

Un comensal pregunta al narrador qué tipo de historias escribe, y cuándo éste responde que escribe novelas que reflejan la vida, el comensal vuelve a preguntar:

«— ¿Realismo?

— *Si. ...: realismo y algo de romanticismo también. Poco más o menos, como todas las novelas*».

Baina, Anduezak ezagutu zuen Kubarako nahiz Espainiako beste gordeleku inperialtako azken kanpai hotsak iritsi zirenean, beste bertsolaritza borrokalariago bat sortu zen gure artean, Antonio Zabalak jasotako *Kuba'ko gerra* izeneko bilduman ikus daitekeen bezala. Irakurlearentzat berria gertatzen bada ere, mota horretako bertsotan azaltzen dira ezkortasunerako zio berak eta kritikarako kausa bertsuak 89. urteko belaunaldia deitzen zaion garai hartako kontseilari ezagunen obretan. Halaxe agertzen da Tolosan argitaratu ziren bertso batzuetan 1896an esaten den bezala «*España daukagu txit errukarriya, dituben lur-apurak, galdu ditu iya*». (Makalaldian dugu Espainia, galdu baititu ia gelditzen zitzaizkion lur apurak).

Egoeraren kulpa guztia ideologia berri batek du: «*Madarikagarrizko liberalkeriya, zu zera gauza oien etsai galgarriya*» (Liberalismo madarikatua, zu zera gauza horien arerio galgarria). Gure bertsolariek ezin esango dute harako hura: *Habanan sobran dutena ez balitz hemen falta*. Argi eta garbi dago Elías Gorostidientzat, eztabaidaren bukaera igartzen duenean, monarkiaren aurka jarri eta errepublika aldarrikatuz: *Geienak ill ta Kuba'n gelditu, gutxi biurtu etxera*. (Gehienak Kuban hil eta bertan geldituko dira eta gutxi batzuk itzuliko dira).

Ikusten denez, 98ko idazleen gogo-aldarte ez da ezkutukoa gure bertsolaririk apaleneztat. Gure ustez, bai Unamunok bai Barojak esku hartzen zuen garai hartan oso hedatua zegoen joera batean.

Barojaren itsaso erromantikoa

Barojak gogoan du hura itsasoa gaitzat hartuta bere eleberriak idazterakoan, baina nobelagileak ez ditu ahazten lehenagoko marinelen ausardia, adorea eta harrotasuna. Barojaren lan guztiak mira, errealitatea eta etsipen asaldatzaile artean harat-honat dabilen koordinatu batean mugitzen dira. *Shanti Andia* ordenatu nahirik bere abenturak idazten hasten denean, mira etsi horretan murgildurik sumatzen dugu: «*Las condiciones en que se desliza la vida actual hacen a la mayoría de la gente opaca y sin interés (...). La generalidad de los hombres nadamos en el océano de la vulgaridad. (...) Yo, en cierta época de mi existencia, he pasado por algunos momentos difíciles, y el recordarlos, sin duda, despertó en mí la gana de escribir*». Shanti Andia beharturik dago inolako interesik sortzen ez dion gizarte batean bizitzera, baina galdutako munduaren oroitzapenek eta mirak idatzizko kreazio-lanera eramango dute. Nahiz eta Pío Baroja idazle errealistaren eredu garbitzat hartzera beharturik egon, itsasoaren inguruko bere eleberriak xarma erromantiko bat dute. Idazleak berak aitortzen du *El laberinto de las sirenas* lanean.

Zer eratako istorioak kontatzen dituen galdetzen dio bazkaltiar batek kontalariari, eta honek bizitza islatzen duten eleberriak idazten dituela esatean, berriro galdetzen dio bazkaltiarrek:

— *Errealismoa?*

— *Bai: errealismoa, eta erromantizismotik ere zerbait bai. Gutxi gorabehera eleberri guztietan bezala.*

En su novela «La estrella del capitán Chimista», al justificar personajes como el propio Chimista o Embil, pone en boca de un profesor alemán, entre otras, la siguiente pregunta: «¿Cuál es la razón de la existencia de hombres como sus dos marinos en el medio ambiente del siglo XIX, monótono, colectivo y gris?». Lo que responde Cincunegui es una compendio de tópicos frecuentes en el País: él es amigo de Platón, amante de la, verdad, católico y liberal, liberal y católico. El narrador de «Los pilotos de altura» nos dará a conocer un manuscrito rescatado de la biblioteca de Cincunegui, quien «trabajó en sus recuerdos históricos, tomó datos de la historia de Lázaro, cosa que no interesaba en una época tan exclusivamente positivista y deportiva». Hay ironía en las palabras del narrador cuando se refiere al pasado, pero no por ello encontraría el impulso de publicar el manuscrito. He aquí el juego anteriormente citado que se establece entre la nostalgia y el espíritu rebelde.

Todos miran, de una forma u otra, al mar, allá conforman su educación, envueltos en un ambiente aventurero y romántico, pero sacudidos también por el sentimiento pesimista propio del movimiento realista. Se trata de contraponer a la «época exclusivamente positivista y deportiva» el enojo y la protesta por el ideal perdido, por el eco apagado. Porque Pío Baroja es sobre todo en sus novelas sobre el mar epígono del espíritu romántico. Si siguiéramos a Lhande, no nos sería difícil descubrir raíces atávicas y no tendríamos, quizá, otra solución. Porque aún en los comportamientos más enérgicos siempre aflora un sentimiento de nostalgia por el País, cierto sentimiento que calificaríamos como telúrico.

EPÍLOGO

Al abordar un tema como las relaciones entre la literatura y el mar, Pío Baroja ha de servir, entre nosotros, de telón. O de prólogo. Y con el donostiarra cerramos nuestro escenario. Podríamos citar a Txomin Aguirre que en la misma época de Baroja nos legó «Kresala», que aunque abundante en tópicos referidos a la vida del mar, es su mejor novela. No podríamos olvidar la fuerza simbolista que Lizardi otorga al mar: El mar no es más que la ruta, muchas veces estéril y siempre solitaria, que ha de seguir el artista para acceder al ideal de la belleza. En el caso de Salvatore Mitxelena, el País, sumido en su propio Calvario, se resiste en connotaciones y modos populares, y esa imaginaria recurrirá constantemente al mar. Por los cauces de la novela social, Ignacio Aldecoa precisará las condiciones sociales y humanas del trabajo en el mar en su novela «Gran Sol», al igual que en su poética lo hará Gabriel Celaya. Mikel Lasa será, quizá, el único poeta que haya sabido hablar entre nosotros del mar con tanta hondura poética, bajo las influencias del simbolismo francés...

Pero permítasenos terminar este trabajo con las palabras de Pío Baroja:

Bere *La estrella del capitán Chimista* eleberrian, *Chimista* edo *Embil* pertsonaien azalpena ematerakoan, besteak beste, honako galdera hau jartzen du irakasle aleman baten ahoan: «¿Cuál es la razón de la existencia de hombres como sus dos marinos en el medio ambiente del siglo XIX, monótono, colectivo y gris?» Gure herrian sarritan ematen diren topikoen zerrenda da Zinkunegik erantzuten duena: Platonen adiskidea da, egiazalea, katolikoa eta liberala, liberala eta katolikoa. *Los pilotos de altura* lanaren kontalariak emango digu Zinkunegiren bibliotekatik berreskuratutako eskuizkribu bat; hark «trabajó en sus recuerdos históricos, tomó datos de la historia de Lázaro, cosa que no interesaba en una época tan exclusivamente positivista y deportiva». Iraganari buruz ari denean, ironia dago kontalariaren hitzetan, baina horregatik ez du aurkituko eskuizkribua argitaratzeko bultzadarik. Hona hemen lehen aipatutako jokoak, miraren eta espiritu errebolitariaren artean finkatzen dena.

Denek begiratzen dute itsasora, era batera nahiz bestera, jaso duten hezieraren arabera, giro abenturazale eta erromantiko batek inguraturik, baina mugimendu errealistak bere-berea duen sentipen pesimista batez astindurik. Kontua da «época exclusivamente positivista y deportiva» hari, haserrea eta protesta kontrajartzea, galdutako idealarengatik, oihartzun sorrarengatik. Izan ere, Pio Baroja izaera erromantikoaren epigono bat da, itsasoari buruzko bere lanetan, batez ere. Lhanderi atzetik jarraituz gero, ez litzaiguke zaila sustrai atabikoak aurkitzea eta ez genuke beste irtenbiderik, agian. Zeren eta jokaera gogorrenetan ere beti sortzen baita herriarekiko mirazko sentimendu bat, sentimendu teluriko moduko bat.

HITZ BATEAN

Literaturaren eta itsasoaren arteko harremanaren gisako gai bati heltzean, Pio Baroja oihala gisa erabili beharko genuke gure artean, edo sarrera gisa, agian. Eta donostiarrarekin itxiko dugu gure eszenatokia. Ez ordea beste aipu bat egin gabe, Barojaren garai berean *Kresala* eleberria utzi zigun Txomin Agirrerena, hain zuzen. Itsasoko bizimoduari buruzko topiko asko erabiltzen dituen arren, huraxe da bere eleberririk onena. Eta ez zaigu ahaztuko Lizardik itsasoari nolako indar simbolista ikusten dion: itsasoa ez da bidea baizik, sarritan agorra eta beti bakartia bada ere, ertiliariak jarraitu behar duen bidea, edertasunaren ideala eskuratu nahi izanez gero.

Salvatore Mitxelenaren kasuan, berriz, Gurutzebideari joserik herri-lotura eta moduetan bizirauten du herriak, eta irudi horrek etengabe joko du itsasora. Eleberri sozialaren alorrean, Ignacio Aldecoa itsasoko lanaren baldintza sozialak eta giza baldintzak zehaztuko ditu bere *Gran Sol* eleberrian, bere olerkigintzan Gabriel Celayak egingo duen bezalaxe. Mikel Lasa izango da, beharbada, gure artean itsasoaz hainbesteko sakontasun poetikoz mintzatzen asmatu duen poeta bakarra, frantses simbolismoaren eragina lagun...

Baina, zilegi bekit lan hau Pio Barojaren hitzez bukatzea:

«Esta costa del Golfo de Gascuña tiene contrastes violentos. Durante el verano los arenales brillan al sol como el oro, y el mar aparece a lo lejos con un azul intenso, como de un país del extremo sur, y en el crepúsculo grandes amontonamientos de nubes rojas.»

En las tardes de otoño, cuando el sol va descendiendo como un globo sobre los arenales amarillentos, entre nubes pulidas del crepúsculo, todo toma un aire melancólico. En las épocas de equinocio las olas parecen que van a conquistar la tierra. Luego, ya avanzada la estación, llegan por el cielo nubarrones grandes, de color violáceo oscuro, rayando constantemente el aire con líneas de lluvia.»

«Después entre el dominio de lo gris (...)».



Arriskuaren aurrean segurtasuna:

«Handinahiaren eta itsasoaren dei engainagarriari entzungor egin behar zaio»,
Goietxeren elezahar batek dioenaren arabera. Ricardo Barojaren grabatuetako irudi-erakusgaiak,
«La nao Capitane» (Caro Raggio Argitaldaria, Madril) obra irudiztatzen dutenak.

La seguridad frente al riesgo:

«No hay que abrir oídos a la engañosa llamada de la ambición y del mar»,
según nos aconseja una fábula de Goyetche.
Grabado de Ricardo Baroja en «La nao Capitane». Caro Raggio Editor, Madrid.



Ekaitzak galdutakoak itsasotik aterata portura noiz iritsiko zain egotea biltzen du argazkiak.
La fotografía recoge la espera de la llegada a puerto de las víctimas del temporal recuperadas al mar.

ECOS DEL MAR EN EL BERSOLARISMO

por ANTONIO ZAVALA

LA GALERNA DE 1912

A la memoria de los marinos de Cantabria

A

Así podría traducirse el título de una composición vasca en verso, *Kantabria'ko itxas-gizonen oroipen bat*, cuyos autores nos son conocidos por la última estrofa:

*...orra amasei bertso
oraingo berriyak,
Fermin Imaz'ek eta
Txirritak jarriyak.*

(He aquí dieciséis nuevas estrofas, compuestas por Fermín Imaz y Txirrita).

Estos bertsolaris se inspiraron en la galerna del 12 de agosto de 1912, en la que perecieron cerca de ciento cincuenta pescadores vascos.

Los periódicos de la época superan al *bertso-papera* en información; con sólo reunir y ordenar sus datos podría escribirse una extensa y conmovedora narración de aquella tragedia. El P. Alberto Risco dio una versión novelada con el título de *La galerna*. Pero yo voy a limitarme a presentar a comentar las estrofas, porque éstas, a mi juicio, muestran un dolor más profundo y colectivo.

He aquí la cuarta:

*Abuztuko
amairugarrena,
gureztat argitu dan
egunik txarrena;
izan zagun kupira
denak alkarrena,
gogoratu utsarekin
lertzen zait barrena,
au da paraderua
kantabritarrena!*

ITSASOAREN OIHARTZUNAK BERTSOLARITZAN

ANTONIO ZAVALA

1912KO ENBATA

Kantauriko itsasgizonen oroitzapenean

H

Hauxe litzateke euskal bertso-sail honen izenburua “Kantauriko itsasgizonen oroitzapen bat”, eta egileen izena, berriz, azken bertsoak esaten digu:

(Hona hemen hamasei bertso berriak, Fermin Imazek eta Txirritak jarriak.)

Bertsolari hauek 1912ko abuztuaren 12ko enbata izan zuten inspirazio-iturria, hain zuzen ere, ehun eta berrogeita hamar bat euskal arrantzalaren galera eragindakoa.

Orduko egunkariak eman zuten informazioa bertso-paperetakoa baino handiagoa izan zen; datuak bildu eta ordenatuz gero, nahikoa litzateke tragedia haren kontakizun luze eta hunkigarria idazteko. Alberto Risco apaizak *La galerna* izeneko eleberrian eman zuen haren bertsioa. Baina, nirea bertsoak aurkeztea eta azalpenak ematera baino ez da izango, nire ustez, hobeto islatzen baitute herriaren bihozmin sakona.

Horra hor laugarrena:

(El 13 de agosto fue el día más triste que para nosotros haya amanecido. Tengamos compasión unos de otros. Con sólo recordarlo se me parte el corazón... ¡Qué fin el de los marineros cántabros!).

En eso del 13 de agosto no hay error de fecha. La galerna se desencadenó al atardecer del 12 y continuó en todo su furor durante todo el día siguiente, que fue cuando zozobraron muchas de las embarcaciones.

La siguiente estrofa se refiere a los bermeanos, de los que se ahogaron ciento seis hombres. Los bertsolaris hacen resaltar la magnitud del llanto que tal cifra suponía para un pueblo pequeño, y se duelen de los niños y madres que quedan sin padre o esposo y privados de todo amparo en este mundo.

*Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte ederra;
erri txiki batentzat
ai ori negarra!
Aurrak aita falta du
ta amak senarra,
badaukate anparo
on baten bearra!*

Esto mismo lo expresaba así la esquila que a los pocos días apareció en los periódicos:

El ilustre Ayuntamiento de la M. N. y M. L. Villa de Bermeo, las 62 viudas, los 205 huérfanos y los 98 padres que han perdido a sus hijos...

Casi toda la flota pesquera de Bermeo se había hecho a la mar en la mañana del 12, con ánimo de volver a los pocos días para la fiesta de San Roque. En Ondarroa, en cambio, la mayor parte de los pescadores había quedado en tierra, por celebrarse aquel mismo día la festividad de Santa Clara. Y así resultó que del primer pueblo se ahogó más de un centenar de hombres, y del segundo sólo tres. Lo que perdió a unos, salvó a los otros.

En la séptima estrofa se da el número total de los que han rendido cuenta de sus vidas a Dios, ciento cuarenta y tres, y se pide para ellos una oración a todo el que tenga corazón.

*Eun da berrogei ta iru
omen dira danak,
arrantzalietaik
ondata diranak,
gure Jaungoikuari
kontua emanak;
guk egin biar degu,
bizirik geranak,
aientsat erregutu
biotza duanak.*

La primera mitad de la composición está dedicada a consideraciones generales, semejantes a las de las estrofas presentadas. Luego vienen tres estrofas que nos hablan

(Abuztuaren 13a izan zen guretzat inoiz argitu zen egunik txarrena. Izan dezagun elkarrenganako gup ida. Gogoratze hutsak hausten dit barrena. Hura zen Kantauriko marinelen bukaera tristea!)

Abuztuaren 13ko horretan ez dago data-okerririk, izan ere, 12aren ilunabarrean lehertu zen enbatak biharamun osoan artean haserre eta indarrean ziharduen, eta orduantxe irauli zituen itsasontzi haietako asko.

Hurrengo bertsoak bermeotarrak ditu hizpide, ehun eta sei gizon ito baitziren. Herri txiki batean hainbeste hildakok eragin zuen negar garratza nabarmentzen dute bertsolariek, eta min dute; hau da, aitarik edo senarrik gabe eta mundu honetako babesik gabe gelditutako haurren eta amen mina.

Horixe adierazi zuen handik egun gutxira egunkarietan azaldu zen eskelak:

Bermeoko ia ontziteria guztia itsasoratua zen 12aren goizean, handik egun gutxira, San Roke egunerako arrantzetatik lehorreratzeko asmoz. Ondarroan, aldiz, arrantzale gehienak lehorrean ziren, egun horretantxe zen Santa Klara eguna ospatzen. Hala, lehen herri horretako ehun itsasgizon baino gehiago hil ziren eta, bigarren herrikoak, hiru baino ez. Batzuk galdu zituenak berak salbatu zituen besteak.

Zazpigarren bertsoak Jainkoari beren biziaren kontua eman ziotenen kopuru ematen du; ehun eta berrogeita hiru ziren, eta haien aldeko otoitza eskatzen zaie bihotza duten guztiei.

Bertso-sailaren lehen erdiak gogoeta orokorreari ematen die leku, aurkezpenean agertutako bertsoek bezala. Ondoren datoz Daniel Eskurtzari, enbata hartatik bizirik irtendako

del superviviente más famoso de la galerna, Daniel Escurza. He aquí una de ellas.

*Egur biren gañian
gizon bat jarriya,
ai, zer ote zan aren
orduko larriya!
Lagunak bera jun ta
estadu urriya,
ez da Donostiyara
errez etorriya
ikusi du birian
ixtilu gorriya.*

(Un hombre sostenido por dos maderos... ¡Qué angustia sería la suya! Los compañeros se ahogaban y él soportó su triste situación... No ha llegado fácilmente a San Sebastián... ¡Cuánto habrá sufrido en el camino!)

Este Daniel Escurza, de Lekeitio, era el patrón de la barca San Nicolás. Tenía treinta y nueve años y era padre de cinco hijos. Componían la tripulación ocho hombres. Al desencadenarse la galerna, el viento les derribó el mástil. Entonces ataron éste y otro madero en forma de cruz.

A medianoche el viento dio vuelta a la barca y la puso con la quilla mirando al cielo. Los ocho pescadores pudieron salir a la superficie y agarrarse a los maderos.

De allí a poco, el viento y las olas enderezaron la barca. Cuatro de aquellos hombres quisieron entonces alcanzarla a nado. Pero el viento la alejaba rápidamente. Convencidos de no poder alcanzarla, dieron vuelta. Mas era ya tarde. No pudieron llegar hasta los maderos y el mar se los tragó a los cuatro.

A otro de los supervivientes se le enredó la soga del mástil y se ahogó también él.

Quedaban tres hombres: Escurza, Félix Laca, de diecinueve años y Fidel Bengoetxea, de veinte. Transcurría el tiempo y las fuerzas de estos dos últimos íban debilitándose. Escurza les animaba. Pasaron así doce horas. Era el mediodía del día 13. Rezaron alguna oración, se pidieron mutuamente perdón, se dijeron adiós... Los jóvenes comenzaron a desanimarse; Escurza les alentaba con la esperanza de los vapores que habrían ya salido en busca de los naufragos.

Félix Laca no pudo resistir más; se desprendió de los maderos y lo mismo hizo, al cabo de dos horas, Fidel Bengoetxea.

Escurza, solo en medio del mar, se sentía aún con fuerzas, pero le acosaban la sed y el sueño. Para no tragar agua se taponó la boca con la zamarra; y, para no dormirse, se colocó de modo que una de las poleas del aparejo quedaba justamente debajo de su barbilla. Cuando el sueño le vencía, su barbilla chocaba contra la polea y el dolor le despertaba.

Pasó así el martes, pasó también la noche y amaneció el nuevo día y divisó Escurza varias embarcaciones. Les gritó con todas sus fuerzas, pero pasaron de largo sin oírle. Y llegó otra vez la noche.

Escurza apoyaba los pies, como en estribos, en el cordaje del aparejo.

itsasgizonik ezagunenari, eskainitako hiru bertsoak. Hona hemen haietako bat:

(Egur biren ganean zegoen gizon bat eseria. Huraxe zen egoera larria! Lagunak hondoratuak zituen eta ataka estuan zegoen bera. Asko kostata iritsi zen Donostiara; neke galantak jasan ondoren bidean!)

Lekeitioko Daniel Eskurtza hori, *San Nikolas* arrantzontziko patroia, hogeita hemeretzi urteko gizona eta bost seme-alaben gurasoa zen. Zortzi gizonek osatzen zuten tripulazioa. Enbata lehertu zenean, haizeak masta eraitsi zien eta, orduan, masta beste egur bati lotuta gurutze bat moldatu zuten.

Gauerdian haizeak ontzia irauli eta ontziaren gila zerura begira zuela jarri zuen. Zortzi arrantzalek lortu zuten ur gainera irtetea eta egurrei eustea.

Hura gertatu eta berehala, haizeak eta olatuek ontzia zutitu zuten. Haietako lauk igeri eginez harrapatu nahi izan zuten, baina haizeak azkar urrutiratu zien. Harrapatzea zaila zutelakoan, atzera itzuli nahi izan zuten, baina berandu zen. Ez ziren egurretara iritsi eta itsasoak irentsi zituen lauak.

Bizirik irtendako beste marinel bat mastaren sokan nahastu zen eta hura ere ito egin zen.

Hiru gelditu ziren: Eskurtza, hemeretzi urte zituen Felix Laka, eta Fidel Bengoetxea, hogeitazurte zituen. Denborak aurrera egin ahala, azken bi horiei indarra ahultzen hasi zitzairen. Eskurtzak animatu egiten zituen; hala pasa ziren hamabi ordu, 13 eguerdia zen: otoiñen bat esan, elkarri barkamena eskatu, elkar agurtu eta... gazteenak itxaropena galtzen hasi ziren. Eskurtzak adorea ematen zien, ordu-rako itsasoan galdutakoen bila irtenak izango ziren baporeen itxaropenaz.

Felix Lakak ezin izan zion gehiago eutsi eta askatu egin zen egurretik, eta Fidel Bengoetxeak gauza bera egin zuen, beste bi ordu igarota.

Eskurtza bakarrik gelditu zen itsasoaren erdian; indarrean zegoen, baina egarriak eta logaleak eraso zituen. Urik ez irensteko, zamarrez tapoia egin eta ahoan sartu zuen, eta, ez loak ez hartzeko, aparailuaren txirrika kokotsaren parean, azpian, gelditzeko moduan jarri zen, loak hartzean, kokotsak txirrikaren kontra jotzean oinazeak esna zezan.

Hala igaro zuen asteartea, egun eta gau, eta argitu zuen eguna. Orduan begiztatu zituen Eskurtzak ontzi batzuk. Oihu egin zien indar guztiz, baina aurrera jarraitu zuten entzun gabe, eta berriz iritsi zen gaua.

Eskurtzak aparailuaren soketan jarriak zituen oinak, estriboetan bezala.

Al amanecer del jueves día 15, los tripulantes de uno de los vapores *Mamelena*, de San Sebastián, creyeron oír voces pidiendo auxilio. Prestaron atención y resultó ser así. Divisaron entonces en el mar a un hombre, abrazado a dos maderos en cruz, que movía la cabeza y los brazos. Bajaron un bote y lo recogieron. Eran las seis de la mañana. Escurza había luchado contra el mar durante cincuenta y seis horas.

Toda la gente de mar de San Sebastián quedó admirada de la pericia con que habían sido amarrados los maderos y de la invencible resistencia de Escurza.

La forma en cruz de los palos inspiró a Imaz y a Txirrita esta consideración.

*...itxaso sagradua
ur guziyen buru,
ark ere gurutzia
e rrespetatu du.*

(...también el sagrado mar, cabeza de todas las aguas, ha respetado la cruz).

Aunque en una de las estrofas, la sexta, se nos diga que no habían sido pocas las víctimas de Gipuzkoa, el número de éstas era incomparablemente menor que el de Bizkaia.

La diferencia se debía al sacerdote Orkolaga, vicario primeramente de Zarautz y fundador después del observatorio de Igeldo, el primer hombre que ha sabido predecir las galernas.

También aquella vez la anunció con varias horas de anticipación. Su aviso se cursó a todos los pueblos costeros de Gipuzkoa, donde los pescadores tenían fe ciega en él y se quedaron por ello en tierra casi todos.

Imaz y Txirrita hacen el elogio de Orkolaga en dos estrofas. He aquí una de ellas

*Ai, gure biyotzeko
Aita Orkolaga,
beraren eskutikan
ez gaitzala laga!
Orain bezela zaitu
eguna ta gaba,
berriz itxaso ortan
ez gaitezen traba,
bedorren talentua
gauza biarra da!*

(Padre Orkolaga de nuestro corazón, no nos deje de su mano. Vigile, como hasta ahora, el día y la noche para que no volvamos a tropezar en ese mar. ¡Cuánto necesitamos de su talento!)

Unos cuantos años más tarde no hubiera sido posible tal número de víctimas. Pero todavía nuestros arrantzales salían a vela y remo y la galerna los arrolló a placer.

Me contaba un señor, hace algún tiempo, que recordaba cómo los autores de esta composición, Txirrita e Imaz, se plantaron una mañana de domingo en la escalinata de

Hilaren 15eko egunsentian, ostegunean, Donostiako *Mamelena* baporeko tripulazioak oihu batzuk entzun zituen laguntza eske. Arreta jarri zuten, eta halaxe zen. Gizon bat begiztatu zuten itsasoan, gurutzean jarritako egur batzuei besarkatuta, burua eta besoak mugitzen zituela. Txalupa bat jaitsi eta jaso zuten hara. Goizeko seiak ziren. Berrogeita hamasei ordu igaro zituen Eskurtzak itsasoarekin borrokan.

Donostiako itsasgizon guztiak harrিতa zeuden Eskurtzarekin, egurrak nolako trebeziaz lotu zituen ikusita eta haren iraupen garaiezinaz jabetuta.

Makilak gurutze forman jartzeak honako hau iradoki zien Imazi eta Txirritari:

(...itsaso sakratuak, ur guztien nagusi denak ere, gurutzeari izan dio errespetua.)

Nahiz eta seigarren bertsoan esaten zaigun Gipuzkoako biktimak ez zirela gutxi izan, kopurua ez zen Bizkaian adinakoa izan, askoz txikiagoa baizik.

Orkolaga apaizari zor zitzaion aldea. Orkolaga, lehenik, bikario izan zen Zarautzen eta, ondoren, Igeldoko behatokiaren fundatzailea, enbatak iragartzen jakin zuen lehen gizona.

Orduko hartan ere ordu batzuk lehenago iragarri zuen enbata, eta haren abisua kostako herri guztietan zabaldu zen Gipuzkoan eta, arrantzaleek fede itsuz sinesten ziotenez, ia denak gelditu ziren lehorrean.

Imazek eta Txirritak bi bertsoan goraiatzuten dute Orkolaga. Hona hemen bietako bat:

(Aita Orkolaga, gure bihotzekoa, ez gaitzazu eskutik utzi. Zaindu orain bezala eguna eta gaua, ez gaitezen gal itsaso horretan. Zure adimena beharrezkoa zaigu-eta.)

Urte batzuk beranduago gertatu izan balitz, biktima kopuru ez zen bera izango. Baina, artean gure arrantzaleak belaz eta arraunez irteten ziren, eta enbatak bere gogara hondoratzen zituen.

Hau esan zidan behin gizon batek: aspalditxotik zuen go-goan bertso-sail horren egileak, Imaz eta Txirrita, igande goiz batean Errenteriako parrokiako eskaileretan jarri eta

la parroquia de Errenteria, y comenzaron a cantar, alternando, las estrofas y a vender las hojas en que las habían hecho imprimir.

Cumplían así con la gran misión del poeta popular, del bertsolari: la de ser voz de los sentimientos del pueblo; en aquel caso concreto, la de dar expresión al llanto colectivo que afligía a toda la costa vasca por la mayor tragedia que en ella se haya quizás conocido.

LA GALERNA DE 1909

Era el día 24 de mayo de 1909. A eso de las tres y media de la tarde, el sacerdote Orkolaga lanzó desde el observatorio de Igeldo, del que era fundador, este aviso urgente.

La situación va a perturbarse, téngase cuidado con la galerna.

Los pescadores se dedicaban aquellos días a la pesca de la anchoa. Usaban para ello unos bateles grandes, en cada uno de los cuales embarcaban cuatro o cinco hombres. Se hacían a la mar al anochecer y volvían a la mañana.

La galerna se desencadenó a las nueve y media de la noche, cuando todos los puertos estaban ya vacíos. He aquí cómo lo dice la primera estrofa de la composición:

*Maiatzaren ogeita
laugarren arratsian,
galerna bat sartu zan
modu zorrotzian;
urrengo egunian
kontu txarrak zian,
txaluparen granorik
etzala etxian,
zer pena izango zan
askon biyotzian!*

A muchos de los pescadores los sorprendió en el momento de tender las redes. Las recogieron precipitadamente o las abandonaron sin más, pusieron la proa hacia tierra y, con sólo la vela pequeña en el mástil, emprendieron el regreso en una carrera de vida o muerte.

En tales ocasiones solían refugiarse en Getaria, adonde arribaron, en sólo aquella noche, ciento cincuenta embarcaciones, en su mayor parte de Ondarroa, Lekeitio y Mutriku, además de unos treinta vaporcitos.

No se habían aún realizado las obras de ampliación del puerto; por ello, las embarcaciones tuvieron que ponerse una encima de otra, como quien dice.

El pueblo más castigado fue Ondarroa. Durante aquella temporada se había llegado a descargar, en un solo día y en este puerto, hasta seis mil arrobas de anchoa. Por eso, todos los pescadores estaban en el mar, y trece de ellos perecieron. He aquí sus nombres.

Evaristo y José Domingo Garramiola, padre e hijo; Enrique Badiolaurreta, Feliciano Egurrola, Santiago Badiola, José Manuel Imaz, Joaquín Alkorta, Policarpo Motrico, Domingo Urkiri, Juan Andrés Berridi, Eustaquio Illoro, Lucas Urresti y Ruperto Olano.

kantuan nola hasi ziren, nola bertsoak kantatzen hala inprimarazi zituzten bertso haien bertso-paperak saltzen.

Hori eginez herri-poetaren edo bertsolariaren aparteko eginbeharra betetzen zuten: herriaren sentimenduei aho-tsa jartzea; kasu jakin hartan euskal kostalde osoaren nahigabea, agian inoiz ezagutu den tragediarik handiena adierazten zuten.

1909KO ENBATA

1909ko maiatzaren 24a zen. Arratsaldeko hiru eta erdiak aldera, Orkolaga apaizak, Igeldoko behatokiaren fundatzaileak, presako abisu hau helarazi zuen bertatik:

Eguraldi nahasia dator, erne ibili enbatarekin!

Egun haietan arrantzaleak bokartaren arrantzaletan zebiltzan. Batel handi batzuk erabiltzen zituzten horretarako eta lauzpabost gizon ontziratzen ziren bakoitzean. Ilunabarrean itsasoratzen ziren eta goizean itzultzen.

Gaueko bederatzia eta erdietan lehertu zen enbata, portu guztiak hutsik zeuden garaian. Hona hemen zer dioen gaur irakurleari eskaini nahi diogun bertso-saileko lehen bertsoak:

Sareak botatzen harrapatu zituen enbatak arrantzale asko. Presaka jaso edo bertan behera utzi behar izan zituzten; branka lehor aldera jarri eta, mastan bela txikia besterik ez zutela, itzulerako bidea hartu zuten, hil edo biziko leian.

Halakoetan, Getarian babestu ohi ziren eta gau hartan ehun eta berrogeita hamar porturatu ziren, hogeita hamarren bat bapore txikiz gain; ontzi gehienak Ondarroa, Lekeitio eta Mutrikukoak ziren.

Artean egin gabeak ziren portuko handitze-lanak eta lekua falta zen, horregatik, itsasontziak bat bestearen gainean jarri behar izan ziren, nolabait esateko.

Ondarroa izan zen herririk kaltetuena. Urte hartako bokartaren denboraldian, egun bakar batean sei mila arroba bokarta deskargatzera iritsiak ziren portu horretan. Horregatik arrantzale guztiak itsasoan ziren, eta haietatik hamahiru hil ziren. Hona hemen haien izenak:

Ebaristo eta José Domingo Garramiola, aita-emeak; Endika Badiolaurreta, Feliciano Egurrola, Santiago Badiola, José Manuel Imaz, Joakin Alkorta, Polikarpo Mutriku, Domingo Urkiri, Joan Andres Berridi, Eustakio Illoro, Lukas Urresti eta Ruperto Olano.

Los periódicos, al dar la lista, agregan junto al nombre de José Manuel Imaz estas palabras: ... *de 32 años, versolari; deja madre viuda.*

Quiero llamar la atención sobre el título de versolari. Se diría que, al dar los nombres a los periodistas no pudo la gente del pueblo olvidar esta cualidad de Imaz, como si fuera un motivo más para llorar su pérdida.

He hallado varias hojas o bertso-paperas de este José Manuel Imaz. Y en una de ellas hay una estrofa que dice así.

*Guretzako mundua
txit dago laburra,
guztiok badakigu
il biar deguna
Noiz da nola eztakigu
badator eguna...*

(Este mundo será breve para nosotros; todos sabemos, que hemos de morir; se acerca ya el día, aunque no sepamos cómo ni cuándo haya de ser...).

Parece que el pobre tenía un vago presentimiento de las circunstancias de su muerte.

Me decía su hermana que José Manuel y otro compañero suyo pudieron asirse a un madero y sostenerse en él durante algún tiempo; y que ese compañero, viéndole flaquear, le animaba: *Eutsi, Joxe Manuel, eutsi!* (¡Agárrate, José Manuel, agárrate!); pero que éste respondió: *Ezin! Ezin!* (¡No puedo!), que se soltó y desapareció.

Dice así otra de las estrofas de nuestra composición.

*Ondarroa da asko
kastigatu dana
fameli orietan
bada naiko lana
zierto badakit gaizki
egongo dirana
anparatu nitezke,
jaunak al derana,
askok bezela banu
nundikan emana.*

(Ondarroa ha sido quien más castigo ha llevado. ¡Qué desgracia la de esas familias! No hay duda de que han quedado en el mayor desamparo. Y, señores, les ayudaría con todos mis medios si, como tantos otros, tuviera con qué socorrerles).

Éste que así se queja de su pobreza, es el bertsolari Fermín Imaz, autor de la composición. En alguna época de su vida había sido pescador; de ahí que sintiera tan hondo aquella nueva tragedia del mar.

Las estrofas se imprimieron en hojas sueltas, en *bertso-paperas*; pero, por desgracia, ninguna de ellas ha llegado a nuestras manos. Pude recoger ocho estrofas, algunas de ellas incompletas, de labios de los veteranos arrantzales donostiarras Ignacio Carril, hijo del famoso Luis Carril, e Ignacio Aizpuru.

Egunkariek, zerrenda ematerakoan, Jose Manuel Imazen izenaren ondoan honako hau erantsi zuten: ... *de 32 años, versolari; deja madre viuda.*

Bertsolari tituluari buruz ohartarazpen bat egin nahi genuke: badirudi egunkariei izenak ematerakoan, herriko jendeak ezin izan zuela ahaztu Imazen dohaina, haren galteza deitoratzeko arrazoiak bi izan balira bezala.

Jose Manuel Imaz horren hainbat bertso-orri edo -paper aurkitu ditut. Eta haietako batean dago honako bertso hau:

(Mundo hau motza izango da guretzat. Denok dakigu hil behar dugula, eta hur da, nahiz ez dakigun ez nola, ez noiz izango den.)

Antza denez bazuen gizagaixoak bere heriotzaren halako susmo ilun bat.

Haren arrebak esan zidan Jose Manuel eta beste lagun bat egur bati heldu eta hari eutsita egon zirela aldi batez, eta lagun horrek, ahultzen ikusita, honela animatzen zuela: *Eutsi, Joxe Manuel, eutsi!* Baina, hark hau erantzun ziola: *Ezin! Ezin!* Egurra askatu eta desagertu egin zela.

Hau dio gure saileko beste bertso batean:

(Ondarroak nozitu du zigorrik handiena. Huraxe bai familia haien zoritxarra! Gauza ziurra da babesgabetasunik handiengan gelditu direla. Hara, jaunak, baliabide guztiz lagunduko nituzke, askok bezala, izango banu nondik emana.)

Bere pobreziaz hala mintzo zaigun hau Fermin Imaz bertsolaria da, alegia, bertsoaren egilea. Arrantzale izana zen bere bizitzan, aldi batez; horregatik ukitu zuen hain sakon itsasoko beste tragedia horrek.

Bertso horiek orri soltetan, bertso-paperetan idatzi ziren; baina, zoritxarrez bakar bat ere ez da gure eskuetara heldu. Zortzi bertso jaso nituen, nahiz eta batzuk osatu ga-beak izan, Donostiako eskarmentu handiko arrantzale Inazio Carril —Luis Carril ezagunaren semea— eta Inazio Aizpuruaren ahotik.

La tercera de las estrofas recogidas termina con un ramalazo de ironía amarga y sarcástica.

Jasotako bertsotan hirugarrena ironia-barra min eta trufari batez bukatzen du.

*Itxaso sagradua
dalako meriyo,
makiña batel negar
egiñazten diyo,
berriz ere ezin izan
gindezke ba fiyo,
alperrik astia da
orren kontrariyo,
ito diranak ez dute
jan bearrik geyo.*

(¡A cuántos hace llorar el sagrado mar! No volvamos a fiarnos de él; sería también inútil pretender hacerle frente. Los que se han ahogado ya no necesitan buscarse el pan...).

Dos de las estrofas conservadas se refieren a los dos ahogados de la flota pesquera de Orio. Se llamaban José Ignacio Beretarbide, natural de Alza, y Antonio Illarramendi, de once años.

Se habían hecho a la mar en la barca *San Antonio*, junto con José Antonio y Juan José Manterola, padre e hijo, respectivamente. La barca volcó, aquéllos se ahogaron y éstos pudieron llegar a la costa en el lugar llamado Gasterreneka.

El chico de once años era sobrino de José Antonio Manterola, y éste lo iba llevando hacía la costa, hasta que una ola se lo arrebató.

Esto es lo que los periódicos cuentan, pero los dos arrantzales citados, me dieron una versión distinta, más conforme con las estrofas que nos faltan por citar.

Me decían que iban tres en la barca, los Manterolas y el muchacho. Cuando desesperaron de poder mantener la barca contra los embates de la galerna, uno de ellos tomó sobre sus espaldas al chico y se echaron a nadar. No debían estar lejos de la costa. Pero, así y todo, comprendieron pronto que de ese modo no la alcanzarían.

Dieron entonces la vuelta, regresaron a la barca y ataron a ella al muchacho. Una de las estrofas incompletas lo dice así.

*Salbatuko etzuela
zutenian etsi,
txalupari lotuta
omen zioen utzi...*

(Cuando desesperaron de salvarlo, lo dejaron atado a la barca...).

Volvieron a lanzarse al agua. Alcanzaron la costa en las cercanías del caserío Itxaspe, de Orio, situado en la ladera norte del monte Talaigaña, cerca de la desembocadura del río Oria.

Llegaron a Orio, donde inmediatamente se preparó un vaporcito para ir en busca del muchacho.

(Makina bati negar eginarazten dio itsaso sakratuak! Ez gintezke berriz hartaz fida; aurka egitea ere alferrik litzateke. Ito direnek ez dute jan beharrik gehiago...)

Gorde diren bi bertsoak Orioko ontzidiko bi arrantzaleei buruzkoak dira. Hauek ziren itota hil zirenak: Altzako Jose Inazio Beretarbide eta hamaika urteko Antonio Illarramendi.

San Antonio txalupan itsasoratu ziren, Jose Antonio eta Joan Jose Manterola aita-semerekin batera. Txalupa irauli eta haiek ito egin ziren eta aita-semeak Gasterrenekan kostaratzea lortu zuten.

Hamaika urteko mutikoa Jose Antonio Manterolaren iloba zen, eta osabak kostalderantz zeramala olatu batek kendu zion.

Horixe da egunkarietan esandakoa, baina aipatu bi arrantzaleek eman zidaten bertsioa bestelakoa da; hau da, oraindik aipatzeko ditugun bertsoen hurbilagokoak.

Esan zidatenez, hiru ziren txalupan zihoazenak, Manterola aita-semeak eta mutikoa. Etsi zutenean ezingo ziotela ontziari eutsi enbataren erasoaren kontra, bietako batek mutikoa bizkarrean hartu eta igerian abiatu omen ziren. Ez ziren, nonbait, kostatik oso urrun. Hala ere, berehala ulertu zuten ezinezkoa zela hara iristea.

Atzera bira egin zuten eta txalupara itzuli ziren; hari lotuta utzi zuten mutikoa. Osotu gabe dagoen bertsoak hau dio:

(Etsi zutenean ez zutela salbatuko, txalupari lotuta utzi zuten.)

Berririo murgildu ziren itsasoan, baita lehorreratu ere, Orioko Talaigaña mendiaren ipar hegiko Itxaspe baserriaren inguruan, Oria ibaiaren bokaletik gertu.

Oriora iritsi eta berehala bapote txiki bat prestatu zuten, mutikoaren bila joateko.



Salbamendu-eszena baten brontzeko estatua eta erliebea
Mariren oroigarrian, Donostiako portuan.

Estatua y relieve en bronce de una escena de salvamento en el
monumento a «Mari» en el puerto donostiarra.





Estatua de «Mari» en Zumaia / Mariren estatua Zumaian.



Sare-lanetan Donostiako portuan, salbamenduzko lanetan bizia galdu zuen Mariren omenez egindako monumentua ageri delarik.

Manipulando redes en el puerto donostiarra, donde se ve el monumento en honor a «Mari» por su acción de salvamento en la que perdió la vida.

Los demás marineros preguntaban en el camino a los Manterola.

—*Nun utzi dezute?* (¿Dónde lo habéis dejado?)

Y éstos respondían señalando con la mano.

—*Or laga degu!* (¡Ahí lo hemos dejado!)

Pero no encontraron la barca ni restos de ella.

Lo que acabamos de contar lo dice así otra de las estrofas.

*Baporía artuta
ziranian erten,
beste lagun guziak
galdetzen zioten
utzitako korputza
la aber nun zuten;
besua luzatuta
ziyon erantzuten,
saiatu ziran bañan
billatu etzuten.*

Es lo más probable que la galerna estrellara y destrozara la barca contra las rocas de la costa.

Uno se sobrecoge al imaginar la muerte de aquel pobre chico, atado a la barca, solo en la negra noche y a merced del mar enfurecido, hasta que una ola, menos cruel, acabó con él...

Cada lector deberá determinar él mismo a quién debe creer: a los periódicos o a los pescadores citados y estrofas de Fermín Imaz.

Otra de las estrofas dice así.

*Arrantzalia dabil
peligro aundiyan,
ardiyak otsuakin
bezala mendiyan;
ezer ez dute izan
joan dan aspaldiyan,
gogorra pasatu da
oraingo aldiyan,
artzeko modukuak
dira memoriyan.*

(Vive el pescador en continuo peligro, al igual que las ovejas del monte con los lobos. No se había tenido hace mucho ningún percance, pero éste de ahora ha sido terrible, digno de que guardemos memoria de él...)

En este último pensamiento podemos ver el motivo que, sobre todo en aquella época, impulsaba tantas veces a los bersolaris a componer y publicar sus estrofas.

LOS NÁUFRAGOS DE ZUMAIA (1878)

Una de las más nutridas colecciones manuscritas de poesía popular vasca que he podido encontrar, la recopiló

Beste marinelek Manterolatarrei galdetzen zioten bidean.

—*Nun utzi dezute?*

Haiek, orduan, besoa luzatuz erantzuten zuten:

—*Or laga degu!*

Baina, ez zuten ezer aurkitu, ez txaluparik, ez haren arrastorik.

Hau kontatzen du bertso horietako batek:

Beharbada, enbatak kostako haitzen kontra jo eta txikituko zuen txalupa!

Ikarak harrapatzen du bat, mutiko gizagaixo haren heriotza irudikatzean: txalupari lotuta, gau beltzean bakarrik eta itsaso haserrearen nahierara, olatu ez hain krudel batek hil zuen arte...

Hau irakurtzean, norberak erabaki beharko du nori sinetsi: egunkariei ala aipatu arrantzaleei eta Fermin Imazen bertsoei.

Honako hau dio beste bertso batek:

(Arrantzalea beti dabil arriskuan, mendiko ardiak atsoarekin bezala. Ez zen halako zoritxarrik aspaldian, baina oraingoa ikaragarria izan da, gogoan gordetzeko modukoa.)

Azken pentsamendu honetan antzeman daiteke zerk bultzatzen zituen bertsolariak, garai hartan batez ere, beren bertsoak osatu eta argitaratzera.

ITSASOAN GALDUAK ZUMAIAN (1878)

Euskal herri-poesiaren alorrean aurkitu dugun eskuizkribu-bildumarik joriena Tolosako Facundo Adurriagak

Facundo Adurriaga de Tolosa que había perdido el brazo derecho trabajando en la fábrica de boinas, por lo que le llamaban Besamotza, (El Manco) y se veía precisado a escribir con la mano izquierda.

Hay en esta colección doce estrofas acerca de un naufragio, con un apellido al final: Manterola. Si fuera el autor, se trataría de un bertsolari desconocido.

El 8 de enero, dice la tercera estrofa, salieron por la mañana a pescar. Pero se desató un temporal con viento del oeste justo cuando habían echado los aparejos y empezaban a recogerlos. Fue un milagro que el agua no los tragara a todos.

*Ilbeltzaren eguna zortzigarrenian,
arrantzara atera ziraden goizian;
gero tenpestade bat mendebal-aizian,
trezak bota ta altxatzen asi ziranian,
milagrozt etzituben danak sartu urpian.*

Abandonaron los aparejos y pusieron rumbo a casa a punto ya de volcar. A mitad de camino encontraron una lancha de Zumaia que había zozobrado y la socorrieron con todo esfuerzo.

*Trezak bertan utzita etxera abiyan,
jira-bira egiñik guztiak iya-iyen;
gero pasa zitzaien bidian erdiyan.
zumaiar txalupa bat zegon desgraziyan,
bai sokorritu ere elegin guziyan.*

Esa lancha de Zumaia llevaba una tripulación de veinte hombres, a los que el temporal había arrastrado al mar. Agustín Andonegi aun a riesgo de perderse él mismo, logró salvar a siete.

*Ogei lagun zituben tripulaziyuan
zumaiar txalupa orrek galduta itxasuan,
Agustín Andonegi bere aziyuan
naiz berea ibillirik iya-iya galduan
zazpi artu zituben al zuben moduan.*

No se nos dice de dónde era este Agustín Andonegi, al parecer patrón de la lancha salvadora. Puede que fuera de Mutriku, donde abunda este apellido.

El bertsolari se hace lenguas del valor de Andonegi y su tripulación. Por poco que les hubiera permitido la tempestad, dice, no se hubieran ahogado esos trece hombres.

*zerbait lagundu izan baziyon denborak,
etziraden itoko amairu gizonak.*

Con aquel temporal era difícil acercarse, pero luchaban por salvarlos. Todos gritaban: ¡Recogednos también a nosotros! Aquellas voces les partían el corazón, pero no fue posible socorrerles.

jasotakoa da. Adurriagari “besamotza” deitzen zioten txapel-lantegian lanean ari zela eskuineko besoa galdua zuelako. Horregatik, ezkerreko eskuaz idaztera beharturik zegoen.

Bilduma horretan itsasoan galdutakoei buruzko hamabi bertso daude, eta deitura bat bukaeran: Manterola. Izen hori egilearena balitz, bertsolari ezezaguna litzateke.

Urtarrilaren 8an, goizean, arrantzara irten zirela dio hirugarren bertsoak. Baina, ekaitza sartu zen mendebaldetik justu trezak bota eta jasotzen ari ziren garaian. Urak denak hondoratu ez zituenean!

Trezak bertan behera utzi eta etxera abiatu ziren, irauli ez irauli. Bidearen erdia eginda, hondoratzen zihuan Zumaiako txalupa bat topatu zuten eta ahalegin guztian jardun zuten laguntzen.

Zumaiako arrantzontzi horretako tripulazioa —hogei gizonetako— eraman zuen ekaitzak herrestan uretara. Agustín Andonegik zazpi atera zituen, bere burua galtzeko arriskuan jarrita.

Ez da esaten Agustín Andonegi hori nongoa zen, baina antza denez, arrantzontzi salbatzaile hartako patroia zen; Mutrikukoa beharbada, hangoa baita deitura hori.

Bertsolariak biziki goraiatzen du Andonegiren eta bere tripulazioaren ausardia. Ekaitzak zerbait lagundu baliote, ez ziratekeen hamahiru gizon haiek itoko.

Denborale harekin ez zen samurra hurbiltzea, gogotik saiatuta baziren ere, ezin salbatu. Oihu egiten zieten denek: *hartu gu ere!* Bihotza lehertzen zieten oihu haiek, baina ezin izan zioten lagundu.

*Iñola arrimatu ezinda salbatu,
alako egualdiya zitzaioten sartu.
danak oyuka: «Arren, jaunak guri artu!
Aien antziz biyotzak ziraden urratu,
bañan iñola ere ezin anparatu.*

Otra estrofa resalta la dureza de la vida del pescador, oficio nada envidiable y de ganancias tan costosas, y pide a dios que vuelva a bendecir el mar.

Beste bertso batean azaltzen da arrantzalearen bizimodu gogorra, lanbide ez-desiragarria eta irabazietan nekeza, Jainkoari eskatuz bedeinka zezala berriz itsasoa.

*Ai, arrantzaliaren bizi penosua!
Ofiziyu ori ez da inbidiosua,
oien irabaziya ain da kostosua,
gure Jaungoiko maite amoriosua,
arren, bedeinka zazu berriz itxasua.*

Las estrofas no dicen el año del naufragio. Queriendo averiguarlo, me fui una tarde a Zumaia, llamé en casa del párroco, D. Teodoro Bikuña, y le expliqué el motivo de mi visita.

D. Teodoro no tenía noticia de esta tragedia. Hizo varias llamadas telefónicas. Pero aquellos a quienes preguntó, tampoco sabían nada.

Ya sólo podíamos valernos de las pistas que la misma composición nos daba que el hecho había ocurrido un 8 de enero, que la lancha naufragada era de Zumaia y que, de veinte pescadores, siete habían sido salvados y trece se habían ahogado.

Fue D. Teodoro al estante de los libros parroquiales, sacó uno de los libros de finados y empezamos a mirar año por año, todos los 8 de enero.

Al poco, en el libro séptimo, folio 53, 54 y 55, encontramos lo que buscábamos. He aquí la primera partida.

Día ocho de enero de mil ochocientos setenta y nueve, habiendo ido a la pesca de besugo la lancha nombrada de San Jose, de esta villa de Zumaya, con veinte personas, se ahogaron trece, de las cuales una era don Francisco María Vidaurreta, de estado soltero, de edad de cuarenta y tres años cumplidos, natural y parroquiano de esta mismo villa, e hijo legítimo de don José Agustín, ya difunto, y de doña Magdalena Olaizola, natural y parroquiana de esta dicha villa y el o la once de este mismo mes se hicieron los funerales en esta iglesia parroquial según el ritual romano y firmé D. Francisco de Echaniz vicario».

Las demás partidas, salvo en los datos personales, son idénticas. He aquí los nombres de los otros pescadores.

- Francisco María Zubía, de veintidós años, soltero, de Zumaia.
- Manuel Ignacio Gómez, de veintiocho años, soltero, de Zumaia.
- José Felipe Amilibia, de cuarenta y siete años, casado, de Iciar.
- José Echave, de cuarenta y ocho años, casado, de Zumaia.
- Juan Antonio Egaña, de veinticinco años, casado, de Zumaia.
- José Luis Aguirrezabalaga, de treinta y dos años, casado, de Zumaia.

Bertsoetan ez da esaten zein urtetan izan zen hondoratze hura. Zumaiara jo genuen bisitan; Teodoro Bikuña erreto-reen etxean deitu genuen, zoritxar haren berri jakin nahirik, eta, hala, gure nahia azaldu genion.

Teodoro erretoreak ez zuen tragedia haren berririk, eta zerbait jakin nahirik batzuei eta besteei galdezka jardun ondoren, ez zuen aurkitu inor zerbait zekienik.

Bertsoak berak ematen zizkigun arrastoak eta ez genuen haiek jarraitu beste biderik: urtarrilaren 8an gertatu zen; Zumaiakoa zen hondoa jo zuen arrantzontzia, eta hogeitarrantzaleetatik zazpi salbatu ziren eta hamahiru ito.

Teodoro erretoreak parroko liburutegiko hildakoen liburu bat hartu zuen eta urtez urteko urtarrilaren 8ak begiratu genituen.

Berehala aurkitu genuen bila genbiltzana, zazpigarren liburuan, 53., 54. eta 55. orrietan. Hona hemen lehen idazpena:

Berdin-berdinak dira gainerakoen idazpenak, datu pertsonaletan izan ezik. Hona hemen beste arrantzaleen izenak:

- Frantzisko Maria Zubia, hogeita bi urtekoa, ezkongabea, Zumaiakoa.
- Manuel Ignazio Gómez, hogeita zortzi urtekoa, ezkongabea, Zumaiakoa.
- Jose Felipe Amilibia, berrogeita zazpi urtekoa, ezkondua, Itziarkoa.
- Jose Etxabe, berrogeita zortzi urtekoa, ezkondua, Zumaiakoa.
- Juan Antonio Egaña, hogeita bost urtekoa, ezkondua, Zumaiakoa.
- Jose Luis Agirrezabalaga, hogeita hamabi urtekoa, ezkondua, Zumaiakoa.

- Ignacio Esteban Echave, de diecinueve años, soltero, de Zumaia.
- José María Aizpurua, de cuarenta años, soltero, de Zumaia.
- Julián Romualdo Eizaguirre, de diecinueve años, soltero, de Zumaia.
- Torcuato Roque Azcue, de cincuenta años, casado, de Askizu.
- Sabas Amas, de cincuenta años casado, de Zumaia.
- Francisco Iraundegui, de cincuenta años, viudo, de Zumaia.

Sabiendo el día y el año, pueda consultar el *Diario de San Sebastián* de aquellas fechas. Este periódico se hacía, según creo, durante el día y se vendía por la tarde.

Por eso, ya el mismo día 8 de enero, viendo el estado del mar, manifestaba su preocupación por las lanchas de la cofradía de Mutriku, en alta mar todas ellas, y comunicaba que, de veinte tripulantes de una lancha de Zumaia, sólo seis habían llegado a tierra.

El día 9, notificaba la pérdida de un patrón de Ondarroa y de una lancha de Lekeitio con seis hombres.

El día 10, copiando al *Noticiero Bilbaino*, informaba de la pérdida de la lancha *San Miguel* con nueve tripulantes y de la lancha *Jesús y María* con diecinueve, ambas de Lekeitio. La Diputación de Vizcaya hacía un donativo de diez mil reales para las familias de los naufragos.

Y el 12, transcribiendo de *La Voz Montañesa*, de Santander, daba la noticia de la pérdida de una lancha de Suances, con doce o trece hombres.

Las estrofas de los naufragos de Zumaia, con todos estos datos como marco, las publiqué en 1978 en el libro *Arrantzaleen bizitza*, donde se recogían las composiciones populares vascas relativas a la vida de los pescadores.

A los pocos meses, con fecha de Año Nuevo de 1979, recibí una carta de don Teodoro Bicuña, en que decía.

Urtarrillaren 8an itsasoan ito ziren Zumayako 13 mariñelen eungarren urte-muga dala-ta, egiteko degun asmoaren berri emanez atera ditugun orriak bialtzen dizkizut.

(Le envió las hojas que hemos sacado para anunciar los actos programados para el día 8 de enero, centenario de la muerte de los trece marineros de Zumaya que se ahogaron en el mar).

Eran unas hojas, ciclostiladas, en las que se copiaban las doce estrofas, se daban los nombres de los naufragos y se invitaba a los feligreses a la misa que el día 8 de enero, a las ocho de la noche, se celebraría por las almas de todos los zumayarras muertos en el mar.

Lamenté no poder acudir. Según me dijeron después, se cantaron durante la misa las estrofas del naufragio.

- Ignazio Esteban Etxabe, hemeretzi urtekoa, ezkongabea, Zumaia.
- Jose Maria Aizpurua, berrogei urtekoa, ezkongabea, Zumaia.
- Julian Romualdo Eizaguirre, hemeretzi urtekoa, ezkongabea, Zumaia.
- Torkuato Erroke Azcue, berrogeita hamar urtekoa, ezkondua, Askizukoa.
- Sebas Amas, berrogeita hamar urtekoa, ezkondua, Zumaia.
- Frantzisko Iraundegi, berrogeita hamar urtekoa, alarguna, Zumaia.

Eguna eta urtea jakinez gero, garai hartako *Diario de San Sebastián* egunkaria begira daiteke. Agidanean, egunkari hori egunez egiten zen eta arratsaldean saltzen.

Horregatik, urtarrilaren 8an, egun berean, itsasoaren egoera ikusita, Mutrikuko kofradiako arrantzontzien kezka agertu zuen eta adierazi, itsaso zabalera irtenak zirela denak, eta Zumaiaiko arrantzontzi bateko hogeitaz gizonetatik sei besterik ez zirela lehorreratu.

Hilaren 9ko albistea zen galduak zirela Ondarroako patroibat eta Lekeitioko arrantzontzi bat, sei gizonekin batera.

Hilaren 10ean zabaldu zuen berria, *Noticiero Bilbainotik* kopiatuta: *San Migel* arrantzontzia galdu zen, bederatzi marinekin, eta *Jesús eta María*, hemeretziarekin; bi-biak Lekeitiarak ziren. Bizkaiko Foru Aldundiak hamar mila erreal eman zituen itsasoan galdutakoen familientzat.


Hilaren 12an, Santanderko *La Voz Montañesa* kopiatuz, eman zuen berriaren arabera, Suancesko arrantzontzi bat galdu zen, hamabi edo hamahiru gizonekin.

Datu horien guztiek markatzen zuten baliatuta, Zumaian itsasoan galdutakoei buruzko bertsoak argitaratu ziren 1978an, arrantzaleen bizimoduari buruzko bertso herrikoiak biltzen zituen, *Arrantzaleen bizitza* liburuan.

Hilabete gutxi batzuen ondoren, 1979ko Urteberrian, Teodoro Bikuñaren eskutitz bat jaso nuen; hau zioen:

Orri haietan, ziklostilez egindakoetan, hamabi bertsoak zeuden kopiaturik, itsasoan galdutakoen izenak ematen zituen eta eliztarrak gonbidatzen, itsasoan hildako zumaiarren arimen alde, urtarrilaren 8an ilunabarreko zortzietan ospatuko zen mezara.

Sentitu nuen ezin joan izana! Ondoren jakin nuenez, meza garaian hondoratze haren bertsoak abestu omen ziren.



Lan honetan aipatzen diren bertsoetako balearen ornoak eta hezurdura orokorraren ikuspegia, Gipuzkoako Ozeanografiako Museoaan.

Esqueleto y detalle de la ballena a la que se refieren los versos citados en el trabajo y que se encuentra en el Museo de Oceanografía de Gipuzkoa.



Última ballena cazada en Orio (1901) / Orion harrapatutako azken balea (1901).



LA GALERNA DE 1878

La de 1878 fue una de las galernas más trágicas de la costa cantábrica. Tenemos a mano dos fuentes de información para trazar un esbozo de aquel desastre: las páginas del periódico *El Noticiero Bilbaino* y una composición de quince estrofas en vascuence, de autor desconocido, conservada en la gran colección manuscrita de Facundo Adurriaga, de Tolosa.

El día 20 de abril, Sábado Santo, amaneció, dice el citado diario,

con una bellísima y dulce temperatura, verdaderamente primaveral, reinando una ligera brisa del Nordeste que convidaba a los pescadores a salir a dedicarse a sus faenas de pesca y a bogar por el líquido y dormido elemento hasta alta mar. Así es que casi todas las lanchas pescadoras de nuestros puertos salieron al alborear...

Pero sobre las once y media de la mañana varió el viento, empezando a soplar el Sur, aunque suavemente y así continuó hasta la una menos cuarto, hora en que de una manera inesperada, sin señalarlo el barómetro, una manga de viento huracanado del Noroeste se dejó sentir con extraordinario ímpetu, descendiendo de tal modo y tan repentinamente la temperatura que no hubo intervalos graduales entre el calor y el frío.

En los tres cuartos de hora que aproximadamente duró tan violento temporal, ¡cuántas lágrimas, cuánto luto ha sembrado en nuestras costas!

Tamaña desgracia, dice por su parte la composición anónima, no se ha conocido nunca. Parecía que el mar no cabía dentro de sus límites.

¡Qué fuerza la del aire y el agua! Hasta que por sí mismo se aplaque, no hay quien pueda sujetarlo.

*Desgraziarik orrelakorik
sekulan ez da aditu,
itxaso ori asarretuta
neurrian ezin kabitu;
nere kristauak, aiziak eta
urak indarrak baditu,
aplakatutzen dan arte bera
iñork ezin errenditu.*

El temporal abarcó todo el litoral comprendido entre Santander y San Sebastián: *esan diteke Donostiatik Santanderra bitartian.*

Causó la muerte de noventa y cinco pescadores de Bermeo, treinta de ellos de una misma calle; cuarenta y siete de Elantxobe; treinta y cinco de Colindres; quince de Santander; ocho, por lo menos, de Lekeitio y varios otros, cuyo número desconocemos, de Ondarroa, Mutriku, San Sebastián, Algorta...

Al vapor *Itálica* le sorprendió la galerna a la altura de Castro. En un momento en que la nube que cubría el mar aclaró un poco, vieron una lancha volcada y sobre ella tres hombres que con las manos en alto pedían auxilio. El capitán, señor Ansotegi, les dio una voz de ánimo y ordenó orzar el buque para acudir a salvarlos. Pero por más que la tripulación se esforzó, no lo consintió el viento. Aquellos tres hombres eran un padre con dos hijos.

1878KO ENBATA

Kantauri kostaldeko enbatarik negargarriena suertatu zen 1878ko hura. Bi informazio-iturri ditugu eskura, zoritxar haren zirriborro bat trazatzeko: *Noticiero Bilbaino* egunkariaren orrialdeak eta egile ezezagun baten hamabost bertsoz osatutako bertso-sail bat, Tolosako Facundo Adurriagaren eskuizkribuzko bilduma jorian jasoa.

Apirilaren 20an, Ostegun Santu egunean, aipatu egunkariak dio: eguna argitu zuen,

Halako zoritxarrik ez zen egundaino ezagutu, bertso-sail ezezagunak dioenez. Itsasoa bere mugetan kabitu ezinik zebilela zirudien.

Hura zen haizearen eta uraren indarra! Bere kasa baretu artean, ezin inork errenditu.

Ekaitzak kostalde osoa erasan zuen: *esan diteke Donostiatik Santanderra bitartian.*

Bermeoko laurogeita hamabost arrantzale hil zituen; haietatik hogeita hamar kale berekoak ziren; berrogeita zazpi, Elantxobekoak; hogeita hamabost, Colisdreskoak; hamabost Santanderkoak; zortzi gutxienez, Lekeitiokoak eta, beste batzuk, zenbat izan ziren ez dakigunak, Ondarroakoak, Mutrikukoak, Donostiakoak, Algortakoak...

Itálica baporea Castro parean harrapatu zuen enbatak. Itsasoa estaltzen zuen lainoa argitu zuen istant batean, arrantzontzi bat ikusi zuten iraulita, eta gainean hiru gizon eskuak altxatuta, laguntza eske. Ansotegi jaun kapitainak adorezko oihu batzuk egin eta ontzia abortzatzeko agindua eman zuen, salbatzera joateko. Tripulazioa gogotik saiatu bazen ere, haizeak ez zien utzi. Hiru gizon haiek aita-semeak ziren.

Nadie puede hacerse a la mar de cualquier forma, comenta otra de las estrofas. Los que en él navegan están cercados de peligros. Por más que aquí o allá sea el autor de destrozos como el presente, ninguno podrá ir con el alcalde a pedirle cuentas.

*Ai, itxasora ez dadukagu
edozein moduz juaterik,
an dabiltzanak jeneralian
daude peligröz beterik,
egiten badu emen edo an
modu ortako kalterik
ez dauka inork alketeakin
justizia egiterik.*

Durante varios días, en los pueblos de la costa no se oyó más que el llanto y los gemidos de las mujeres y niños que habían quedado viudas o huérfanos: *ume txikiak eta andreak gizona galdu zaienak*.

Mientras, el mar iba arrojando a la orilla cadáveres y restos de naufragios.

Se puso en marcha inmediatamente la campaña a fin de recabar ayuda para los familiares de las víctimas.

La Diputación de Vizcaya inciaba una suscripción pública, depositando la suma de cincuenta mil reales. Pensamos que la de Gipuzkoa, aunque menos afectada por la catástrofe, procedería de modo semejante.

El *Noticiero Bilbaíno* abría también la suya, contribuyendo su redacción con cien reales.

Y en toda España se organizaron tanto suscripciones como funciones benéficas.

En la del circo de Price, de Madrid, celebrada en octubre, a la que asistieron Alfonso XII y la Reina Mercedes, el público exigió a gritos la presencia de Iparragirre en el escenario, a donde fue llevado a hombros desde el asiento de paraíso que ocupaba y donde dirigió el *Gernikako Arbola*, subiendo después al palco regio.

Al bertsolari le pidieron que compusiera unas estrofas para ser publicadas: *esan didate ager ditezen ipiñitzeko bertsuak*; encargo que él cumplió de buena gana para persuadir a sus oyentes o lectores de la caritativa obra que harían aportando su ayuda: *zer obra ona egingo duen zerbait laguntzen dienak* y pedir una oración por los ahogados: *oraziyo guk egin dezagun aientzat mundu onetan*, a fin de que el Señor del Cielo los recibiera en su gloria: *Jaun dibinuak artu ditzala zeruko glori aietan*.

Nos da además dos noticias interesantes: la primera, que hacía doce años que el mar se había asimismo enfurecido: *orain amabi urte omen zun piska bat alborotua* y la segunda, que hacía trescientos años había ocurrido una desgracia semejante: *orain irureun urte omen zan gertaera au lenago*, según quedó constancia escrita y él la había leído: *bañan paperan ipiñi zuten, neroni leitua nago*.

También entonces habían perecido muchos marineros y los que se salvaron, quedaron tan escarmentados que ya no querían exponerse a tales peligros; por lo cual, como no entraba pescado y las calles daban pocas cosechas, vinieron pescadores de Galicia.

Beste bertso batek dio ezin daitekeela inor hola-hola itsasora. Nabigatzaileak arriskuz inguraturik egon ohi dira. Han-hemenka oraingoa bezalako kalteak eginak izanagatik ezingo du inork konturik eskatzera joan alkatearekin.

Kostako herrietan, zenbait egunez ez zen entzuten alarjun eta umezurtz gelditutako emakume eta haurren negar eta intziriak besterik: *ume txikiak eta andreak gizona galdu zaienak*.

Itsasoak, bitartean, itsasertzer a jaurti zituen gorpuak eta hondoratutakoen arrastoak.

Berehala jarri zen abian hildakoen familientzat laguntza eskatzeko kanpaina.

Bizkaiko Foru Aldundiak eman zion herri mailako izen-emateari hasiera, mila erreal jarrita. Uste izatekoa da Gipuzkoakoak ere antzera jokatu zuela, nahiz eta probintzia hau zoritxarrak gutxiago zigortua izan.

Noticiero Bilbaínok ere bere zerrenda ireki zuen eta erre-dakzioak ehun errealean ekarpena egin zuen. Eta Espainia osoan doako funtzio adina laguntza-emate antolatatu ziren.

Madriren, urrian egin zen Price zirkuan, Alfontso XII.a eta Mercedes Erregina bertan zirelarik, ikusleagoak oihuka eskatu zion Iparragirre eszenatokira jaisteko, eta goialdeko eserlekutik bizkarrean ekarri eta hantxe abestu zuen *Gernikako Arbola*, eta ondoren erregeen palkora igo zen.

Gero, bertsolariari, bertso batzuk idazteko eskatu zioten, argitaratzeko: *esan didate ager ditezen ipiñitzeko bertsuak*. Agindua gogoz egin zuen hark, bere irakurle eta entzuleei adieraziz, nolako karitatezko obra egingo zuten laguntza emanaz: *zer obra ona egingo duen zerbait laguntzen dienak*, eta haien alde otoitz eginez: *oraziyo guk egin dezagun aientzat mundu onetan*, Jaun zerukoak lorian har zitzan: *Jaun dibinuak artu ditzala zeruko glori aietan*

Horrez gain, albiste interesgarri bi eman zizkigun: lehena, hamabi urte lehenago ere itsasoa haserretu zela: *orain amabi urte omen zun piska bat alborotua* eta, bigarrena, hirurehun urte bazirela antzeko beste zoritxar bat gertatu zela: *orain irureun urte omen zan gertaera au lenago*, idatzirik gelditu zena: *bañan paperan ipiñi zuten, neroni leitua nago*.

Orduan ere arrantzale asko galdu ziren eta salbatu zirenak hain gelditu ziren eskarmentatuak, non ez zuten handik aurrera arriskutan jarri nahi izan; horregatik, ez zen arrainik ekartzen eta kale gorriek uzta gutxi ematen zutenez, Galiziatik etorri ziren arrantzaleak.

*Mariñel asko ito omen zan
besteak bildur da larri,
arrisko, ortan berriz geiago
ez omen zuten nai jarri;
gero arrairik ateratzen ez,
kalean kosetxak urri,
Galiciatik arrantzaliak
berriak ziran etorri.*

Ignoramos a qué galerna y a qué inmigración pueda referirse.

Ezin dezakegu jakin zer enbatez eta zer immigrazioz ari den.

LA BALLENA DE ORIO (1901)

El 14 de mayo de 1901, a las nueve de la mañana, unas lanchas que se dirigían a San Sebastián cargadas de sardina, avistaron una ballena que arrojaba dos chorros de agua por sus narices.

Los pescadores, sin decir nada a nadie, no fuera que otros se les adelantaran, descargaron la sardina y corrieron a proveerse de arpones.

Pero a las diez y media llegaba uno de los vapores, *Mamelena*, con la noticia de haber visto una ballena a la altura de Zumaia.

Zarparon entonces diez lanchas, cada una con once hombres. Tras hora y media de remar, al acercarse a Getaria, vieron que de la ría de Orío salían cinco lanchas y formaban un semicírculo a una milla del puerto. Era que también los oriotarras habían visto la ballena y se adelantaban a los donostiarras.

La ballena, con ser tan grande, se movía ágilmente. Iba y venía sumergiéndose y levantando arena, porque le molestaban los piojos y trataba de quitárselos de encima.

*Aundiya bazan ere
azkarra ibillian,
buelbaka an zebillen
jun da etorriyan,
ondarra arrotubaz
murgill igeriyan,
zorriyak zeuzkan eta,
aiek bota naian.*

Los oriotarras venían armados de arpones, dinamita y sogas.

Oriotarrak hornituak zetozen, arpoiez, dinamitaz eta sokez.

*arpoi ta dinamitak
eta soka pila,
aguro ekartzeko
etzan jende illa...*

Los patrones se llamaban: Manuel Loidi, Manuel Olai-zola, Eustaquio Atxega, Gregorio Manterola y Cesáreo Uranga.

Hona hemen patroien izenak: Manuel Loidi, Manuel Olai-zola, Eustakio Atxega, Gregorio Manterola eta Zesareo Uranga.

La ballena había varado en la playa llamada *La Antilla*, y los oriotarras la acorralaron del lado del mar. Porque algunos pescadores son para la ballena lo que los buenos cazadores para el lobo.

Antilla hondartzan jo zuen hondoa baleak eta oriotarrek itsaso aldetik inguratu zuten. Izan ere, zenbait arrantzale balearentzat, otsoarentzat ehiztari onak bezalakoxe.

*Otso zarari parada artzeko
eiztari onak biar dira,
zenbait mariñel bale-kontuban
berriz alakoak dira...*

Daban miedo los saltos y bramidos de la ballena.

Beldurgarriak ziren balearen salto eta marruak.

*Baliak egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikaratzekuak...*

Le lanzaron ocho arpones, de los que le hirieron seis, causándole la muerte.

Zortzi arpoi bota zizkieten, eta seik jo zuten balea eta hil. Haiek ziren bibak eta txaloak!

Desde tierra llegaban aplausos, vivas y gritos.

*legorretik bazan txalo ta
biba edo deadarrik...*

La amarraron y remolcaron a fuerza de remos, a pesar de tener la marea en contra, llegando a Orio a eso de mediodía.

Lotu zuten eta arraunen poderioz ekarri zuten balea eta, marea aurka izanagatik, eguerdirako Oriora iritsiak ziren.

*Sokaz amarratua
jarririkan zagan,
jendia arraundian
gogotik asi zan;
baña maria kontra
naiko lana bazan,
ala ere eguardiko
balia erriyan zan.*

Todo el pueblo acudió a verla. Medía doce metros de larga, diez de perímetro y cuatro de cola; tenía dos aletas en los costados y dos hileras de barbas en la boca, a modo de peines.

Mundu guztia han bildu zen ikustera. Hamabi metro zituen luzean, hamar metro gerri-biran eta isatsa lau metro zabalean; hegal bi zituen alboetan eta bizar-ilara bi ahoan, orraze-moduan.

*Amabi metro luze,
gerriya amar lodi,
buztan pala lau zabal,
albietan pala bi;
ezpañetan bizarrak
beste illera bi,
orraziak bezela
ain zeuzkan ederki.*

Tenía ojos pequeños, una boca grande, enorme, que llegaba a los dos metros cuando se abría, y su piel parecía de goma.

Begi txikiak eta ikaragarria zuen ahoa, handia, irekitzean bi metrora iristen zena, eta azala, berriz, gomazkoa zirudiena.

Según algunos marineros, era la mayor ballena capturada en nuestras costas.



CRÓNICA GRÁFICA
CATÁSTROFE MARÍTIMA



El hundimiento del buque alemán "Königsberg" en el mar del Báltico, el 24 de octubre de 1914. El buque alemán "Königsberg" se hundió en el mar del Báltico, el 24 de octubre de 1914. El buque alemán "Königsberg" se hundió en el mar del Báltico, el 24 de octubre de 1914. El buque alemán "Königsberg" se hundió en el mar del Báltico, el 24 de octubre de 1914.



*Begi txikiyak eta
abo txit aundiya,
obeto esateko
ikaragarriya;
metro bi zabaltzen zan,
au da bai egiya,
larru guziya goma,
ura animaliya!*

Había quien opinaba que habría sido ahuyentada hacia el Sur por la flota ballenera del Norte de Francia, que hacía pocos días se había hecho a la mar.

Los oriotarras acordaron exponerla al público durante algunos días, colocándola en una rampa, junto al pueblo.

Arrantzale batzuek ziotenez, gure kostaldean harrapatu zen balearik handiena zen. Eta zenbaiten ustez, Frantzia iparraldetik egun batzuk lehenago itsasoratu zen balea-ontzidi batek hegoaldera uxatua izan zen.

Oriotarrek zenbait egunez jendaurrean jartzea erabaki zuten, herritik gertu zegoen arrapala batean.

*Gauza ikusgarritzat
egun batzuetan
erriyaren ondoan
arranplan egon zan...*

La noticia de la ballena cazada y expuesta en Orio se difundió rápidamente y se calculó entre mil quinientas y dos mil las personas que vinieron, aun de lejos, a verla. Los oriotarras cobraban dos reales la entrada, con lo que se embolsaron unas mil pesetas.

Azkar zabaldu zen balea harrapatu eta Orion ikusgai zegoelako albistea; mila eta bostehun eta bi mila pertsona artean heldu omen ziren ikustera, eta urrunetik batzuk. Oriotarrek bi erreal kobratu zuten sarrera, eta guztira mila pezeta inguru bildu zituzten.

*urrutitikan ere
jendia etorri zan,
milla pezetaraño
diruba bildu zan.*

La sacaron después a pública subasta, con un precio de salida de seis mil reales. Pero no se presentó ningún postor y decidieron convertirla en grasa, con un total de trescientas arrobas de la mejor calidad, que dieron un beneficio de siete mil reales, mayor que el que se hubiera obtenido con la subasta.

Enkante publikoa egin zuten ondoren, sei mila erreal eskatzen zuten hasieratik. Baina ez zen eskaintzarik egin eta koipetarako urtzea erabaki zuten; hala, kalitate hobereeneko hiru ehun arroa atera zituzten eta zazpi mila errealeko irabaziak eskuratu, enkantean lortuko zena baino gehiago.

*koipe biurtu eta
aren oliyoa
irureun arrua zan
klase onekoa;
zazpi milla errial
aren baliyoa,
errematia baño
protxu obekoa.*

La ballena pesaba 1.200 arrobas, y otras doscientas su lengua y tripas, que fueron vendidas, a seis pesetas la tina, para abono de los campos.

Por las barbas de la ballena se pagaron 120 duros. También se vendieron sus grandes aletas, y se limpiaron y guardaron sus huesos.

Balea 1.200 arroakoa zen, eta beste 200 bazituen mingainak eta barrenak, tinako sei pezetan soroetarako ongarrigisa saldu zirenak.

Balearen bizarrak berriz 120 durotan saldu ziren. Hegal handiak ere saldu ziren, eta hezurak, berriz, garbitu eta gorde egin ziren.

Con lo cual, después de pagar todos los gastos, quedó una ganancia de cuatro mil pesetas, según una de las composiciones en que se basa este artículo; y de trece mil reales, según la otra.

Esta fue, según creo, la última ballena muerta por nuestros pescadores. Los vascos, que las habían perseguido y cazado durante siglos, hasta el punto de que este cetáceo figure en el escudo de alguna de nuestras villas marineras, cerraban así un capítulo de su historia.

Es, por eso mismo, de mayor interés que, acerca de esta última ballena, se hayan conservado, como digo, dos composiciones en verso, una de veinte estrofas y la otra de nueve.

La primera, que es la más conocida, la encontramos en un *bertso papera*, en una hoja impresa en la imprenta Tip. Elustondo-Zarauz, que puso en nuestras manos el poeta euskérico don Joaquín Aldave, ya difunto, nacido en Vera del Bidasoa y sacristán de Orió durante muchos años.

Otra edición, en una hoja impresa en la Imp. Macazaga-Rentería, nos la facilitaron en la misma Imprenta Macazaga.

Vio también la luz en el semanario *Ibaizabal*, con fecha de 31 de mayo de 1903; y la incluye Ciriquiain Gaiztarro en su obra *Los vascos en la pesca de la ballena*.

La revista *Ibaizabal* da como autor de la composición a Florentino Abarrategui, Mondrago-en. Pero no sabemos en qué se basa para hacer tal afirmación, y el vascuence de las estrofas no es el de aquellas villas.

Por otro lado, Basarri, en un artículo publicado en *La Voz de España* el 13 de febrero de 1964, decía.

Según uno de los que tripularon en el lance la trainera de Achaga, los versos fueron compuestos por un sacerdote, natural de Orió apellidado Orbeago. Ejercía su ministerio en Zumaya.

También Gregoria Ibarгойen, de Orió, ya difunta, que me proporcionó una copiosa colección de *bertso paperas*, aseguraba que estas estrofas las había compuesto un cura, aunque no supo darme su nombre.

La segunda composición se imprimió en la Imp. y Lit. de V. Iraola, y tampoco conocemos el nombre de su autor.

Se da el detalle curioso de que las primeras estrofas, que narran el acoso y muerte de la ballena, están escritas en tercera persona, de lo que cabe deducir que el bertsolari no iba en las traineras que le dieron caza. Pero al final de la cuarta estrofa, desde el momento en que se empieza a dar cuenta del arrastre de la ballena hasta el muelle, pasa a hablar en primera persona del plural, lo que da pie a pensar que también él se hallaba presente y que era, seguramente, de Orió.

La última estrofa nos advierte de que aquel año Orió había realizado grandes hazañas en muchos escenarios: *alde askotan aziyo aundik egiña da aurten Oriyo*. Puede ser una de ellas la bandera ganada por la tripulación oriotarra en las regatas de San Sebastián llevando como patrón a Manuel Olaizola, uno de los cinco que dirigieron la caza de la ballena. Pero eso significaría que la composición de estas estrofas se demoró hasta septiembre.

Beraz, gastu guztiak ordainduta, lau mila pezetako irabazi garbia atera zen, artikulu hau egiteko baliatu dugun bertso-sail baten arabera, eta hamahiru mila erreal, beste baten arabera.

Hauze izan zen, gure ustez, gure arrantzaleek hil zuten azken balea. Euskaldunek harekin itxi zuten beren historia-ren kapitulu bat, gure zenbait marinela-herritako armarietan jartzeraino, mendeetan zetazeo horien atzetik eta harrapatzen hainbeste jardun zutenena.

Horrexegatik, garrantzi handia dute azken balea honi buruz gorde diren bi bertso-sailek: hogeitortzi bertsoz osatuak nahiz bederatzi bertso dituenak.

Lehen da ezagunena, eta *bertso-paper* batean aurkitu dugu, hain zuzen ere, Elustondo-Zarauz moldiztegi tipografikoan egindako batean. Joakin Aldabe herri-bertsolari edo olerkariak, Beran jaio eta urte luzeetan Orioko sakristau izan zenak egin zituen.

Beste argitalpen bat, Errenteriako Makazaga moldiztegian egindako orri bat, moldiztegian bertan eman ziguten.

Ibaizabal astekariak ere argitaratu zuen sail hori bera 1903ko maiatzaren 31n; eta Zirikiain Gaiztarrok ere sartu zuen *Los vascos en la pesca de la ballena* lanean.

Ibaizabal aldizkariaren arabera Arrasateko Florentino Abarrategi zen lan horren egilea. Baina, ez dakigu zertan oinarritzen den baieztapen hori egiteko orduan, bertsoetako euskara ez baita eskualde hartakoa.

Bestalde, 1964ko otsailaren 13an, Basarrik *La Voz de España* egunkarian argitaratutako artikuluan, hau zioen:

Orioko Gregoria Ibarгойenek, bertso-paper bilduma oparoa eman zidanak, hark ere horixe bera zioen, bertso horiek apaiz batek idatzi zituela, alegia. Baina ez zekien haren izena.

Bigarrena, berriz, V. Iraola moldiztegi eta litografia lantegian egin baziren ere, ez dakigu egilearen izena.

Lehenengo bertsoek, baleari egindako eraso eta heriotza kontatzen dutenak, hirugarren pertsonan idatzita daude, uste izatekoa da bertsolaria ez zihoala balea harrapatu zutenekin traineruan. Baina, laugarren bertsoaren azken zatian, balea kairaino herrestan eraman zutelako berria ematen hasten denetik, pluraleko lehen pertsonan hitz egiten du, bera ere bertan zela eta ziur asko Oriokoa zela aditzera emanaz.

Azken bertsoak ematen du Oriok urte hartan egin zituen balentria handien berri: *alde askotan aziyo aundik egiña da aurten Oriyo*. Agian, balentria haietako bat da, Manuel Olaizola —balearen harrapaketa buru ibili ziren bost haie-tatik bat— patroiz zuela, oriotarren tripulazioak Donostiako estropadetan bandera irabazi izana. Baina, orduan, bertso hauek ez ziren iraila bitartean paratu!

Para remate, los pescadores de Orio supieron hacer algo realmente meritorio y difícil: sacar provecho de la ballena aun después de haberla vendido.

Según consta en las actas del Ayuntamiento, con fecha de 6 de junio de 1901, los cinco patronos presentaron una instancia al municipio, solicitando para sí y para sus hombres que, dado que la ballena había reportado pingües ingresos tanto al Ayuntamiento como a los posaderos y taberneros, se les concediera una subvención para hacer una merienda.

La Corporación municipal, en sesión extraordinaria, bajo la presidencia del alcalde don Francisco Ayestaran, y con la asistencia de los concejales don Calixto Arín, don José María Salsamendi, don Antonio Mutiozabal, don Antonio María Loidi, don José Luis Arostegi y don Juan Sagarna, acordó por unanimidad concederles, del capítulo de imprevistos del presupuesto, la cantidad de cien pesetas.

No será fácil encontrar una muestra más clara de la devaluación de la peseta: con lo que ahora no hay ni para un bocadillo, se daba de merendar, a principios de siglo, a sesenta pescadores.

No sabemos cuándo se hizo esa merienda. Pero si las composiciones aludidas fueron compuestas e impresas al poco de los hechos, se cantarían sin duda en la sobremesa. Lo que sí podemos decir es que las estrofas de la primera composición siguen siendo populares en Orio y que no es infrecuente oírlas.

LA BALLENA DE 1854

En el pleito que con motivo de la ballena cazada en 1878, se celebró en 1879 enfrentando a Getaria y Zarautz, se les interrogó a algunos de los testigos, no acabamos de comprender por qué razones, acerca de otra ballena muerta en 1854. Con lo que ellos declararon y con lo que dicen sobre el mismo tema unas estrofas en vascuence, podemos hacernos una idea de cómo ocurrieron los hechos.

El 17 de enero de 1854, una ballenato se dejó ver en aguas de San Sebastián, cerca de la Zurriola. Tres lanchas salieron a cazarla. Era patrón de una de ellas José Manuel Ezenarro, uno de los declarantes en 1879.

Según las estrofas, fue Luis Gaiztoa quien le clavó el primer arpón; *Luis Gaiztoak emanik lenengo arponada*; y José de Caramelo el segundo: *Jose Karamelok bigarren kolpian*.

Pero según el juicio de 1879, fue Nicolás Olaizola el autor del primer arponazo; y el del segundo Luis Subía, que bien puede ser el Luis Gaiztoa de las estrofas, de quien dice Azkue en su *Cancionero popular vasco*, que *fue un ondaróes que vivió en Fuenterrabía hace unos 65 años*.

La sangre le corría al cetáceo por toda la espalda: *baliari odola bizkarra betian*.

Eta, hori gutxi balitz bezala, oriotarrek asmatu zuten benetan gauza zaila eta meritu handikoa egiten: saldu ostean, baleari etekina ateratzen.

1901eko ekainaren 6an, Udaleko aktan idatzirik dagoenaren arabera, bost patroiek eskari bat egin zioten Udalari: beraienzat eta beren marinelenzat eman ziezaiotela merienda bat egiteko diru-laguntza; izan ere, baleak etekin handia eman baitzien ez Udalari soilik, baita ostalari eta tabernariei ere.

Udalbatzak, bilkura berezi batean, Frantzisko Aiestaran alkatea buru, eta Kalisto Arin, Jose Maria Salsamendi, Antonio Mutiozabal, Antonio Maria Loidi, Jose Manuel Aristegi eta Juan Sagarna jaun zinegotziak bertan zirela eginikoan, aurreikusi gabeko gastuen atalburutik ehun pezeta ematea erabaki zuen, aho batez.

Gauza zaila izango da pezetaren balio-gutxitzearen adibide argiago bat aurkitzea: gaur egun ogitarteko bat erosteko lain ez den diru-kopuruaz, mendearen hasieran hirurogei arrantzaleei jaten emateko adina zen.

Ez dakigu noiz egin zen merienda hori. Baina, aipatzen ari garen bertso-sailak gertakarien ondoren eginak izan baziren, zalantzarik gabe, merienda ostean kantatuko zituzten. Lehen bertso-saileko bertsoak herrian txertatuak daude eta Orion sarritan entzuten direla ere ziur esan dezakegu.

1854KO BALEA

1878an harrapatutako balea zela-eta, Getaria eta Zarautz aurrez aurre jarrita 1879an egin zen auzian, zergatik ez dakigularik, hainbat lekukori galderak egin zitzaizkien, hain zuzen ere, 1854an hil zuten beste balea bati buruz. Haien aitortpenak eta bertso batzuk gai berari buruz esaten dutena kontuan hartuta, antzeman dezakegu gertariak nola gertatu ziren.

Donostiako uretan, 1854ko urtarrilaren 17an, balekume bat agertu zen Zurriola aldean. Hiru arrantzontzi irten ziren harrapatzera. Haietako baten patroia zen Jose Manuel Ezenarro, 1879ko deklarataileetako bat.

Bertsoetan azaltzen denez, Luis Gaiztoak sartu zion lehen arpoia; *Luis Gaiztoak emanik lenengo arponada*; Jose Karamelok bigarrena, *Jose Karamelok bigarren kolpian*.

Baina, 1879ko epaiketaren arabera, Nikolas Olaizolak sartu zion lehen arpoia, eta Luis Sukiak bigarrena, nahiz eta Luis Gaiztoa izan zitekeen, Azkuek bere *Cancionero popular vasco*-n hartaz hau baitio: *fue un ondaróes que vivió en Fuenterrabía hace unos 65 años*.

Baleari odola zerion, bizkarretik behera: *baliari odola bizkarra betian*.

Tiró hacia la Concha, arrastrando las lanchas de sus perseguidores.

Se presentó, en esto, una ballena más grande, probablemente la madre, que se interpuso entre el ballenato y las barcas de los pescadores, rompiendo las amarras y estacas con que éstos sujetaban a aquél.

El ballenato, que había ya muerto, se fue entonces al fondo: *ondora juañ zitzagun balia il zanian.*

Como tardaba en dejarse ver de nuevo, los marineros, fatigados, se retiraron al llegar la noche: *etxera etorri giñan agiri etzanian.*

Pero situaron en Cay-arriba dos centinelas, para que vigilaran si el ballenato subía a la superficie.

Pasó la noche en calma. Pero poco antes del día, volvió a aparecer; y se presentó entonces una lancha de Getaria, que hizo presa de él y comenzó a remolcarlo: *getariarrak artu azaldu zanian.*

Los vigías corrieron a dar aviso. Una lancha donostiarra salió enseguida en persecución de la de Getaria. La alcanzaron y exigieron la devolución del ballenato.

Los de Getaria, que eran más numerosos, contestaron que *la fuerza sería el juez que resolviera la cuestión.*

Llegaron, en esto, otras dos lanchas de San Sebastián, que volvieron a sus reclamaciones; pero los de Getaria repitieron su negativa.

Alguno de ellos llegó a amenazar a sus contrincantes con un arpón: *petxutikan sartuko ziola arpoia.*

Pero Luis Gaiztoa se descubrió el pecho, invitándole a que cumpliera su amenaza: *petxua zabaldua Luisek sartzeko.*

Los donostiarras cortaron las amarras de los de Getaria, ataron las suyas y remolcaron el ballenato hasta la playa de Ondarreta, seguidos por la lancha de Getaria.

Saltaron a tierra unos y otros. El ballenato tenía aún clavados los arpones. Los donostiarras preguntaron de quién eran aquellas armas. Hacía de testigo el numeroso público que se había congregado. Los de Getaria guardaron silencio y el caso quedó zanjado.

Las estrofas hablan de un tal José Manuel Sereno, cuyos puñetazos, que no consta ni cuando ni a quién se los propinó, se oyeron hasta en Getaria, por lo que fue la admiración de la gente y adquirió gran fama.

*Jose Manuel Serenok
indarrak baditu,
aren zartarakuak
Getariak aditu;
jente guztia orduan
omen zan arritu,
izugarritzko famak
ark ekarri ditu.*

El ballenato quedó expuesto al público en Ondarreta. También vino gente de Getaria a verlo. Pero no se les dejaba pasar sin pagar la entrada.

Kontxa aldera jo zuen, harrapatzaileen ontziak herrestan zituela.

Bat-batean agertu zen balea handiago bat, aurrekoaren ama seguruenik, eta arrantzaleen ontzien eta balekumearen erdian sartu zen, hura lotzen zuten amarrak eta estak txak hautsita.

Hala, ordurako hila zegoen balekumea hondora joan zen: *ondora joan zitzagun balia bil zanian.*

Luze zihoan eta, berriro ur gainera ez zela azaltzen ikusita, gaua iritsi zenean, marinelak joan egin ziren, nekatuta: *etxera etorri giñan agiri etzanian.*

Baina, bi zelatari jarri zituzten kaian gora, balekumea ur gainera igotzen ote zen ikusteko.

Bare igaro zen gaua. Baina eguna argitu baino lehentxeago, berriro azaldu zen; Orduan Getariako ontzi bat etorri zen, berari heldu zion eta atoian jarri zuten eramateko: *getariarrak artu azaldu zanian.*

Zelatariak laster joan ziren haren berri ematera. Donostiako txalupa bat irten zen Getariarren atzetik, eta, harrapatuta, balekumea itzularazi zioten.

Getariarrek, gehiago izanik, erantzun hau eman zioten: *epailearen indarrak erabakiko zuen auzia.*

Hartan, Donostiako beste bi txalupa heldu ziren euren kexuekin; baina Getariarrek ezezkoan zeuden.

Haietakoren bat kontrarioei arpoiez mehatxu egitera ere iritsi zen: *petxutikan sartuko ziola arpoia.*

Baina, Luis Gaiztoak, mehatxua bete zezala esanaz, bularra azaldu zion: *petxua zabaldua Luisek sartzeko.*

Donostiarrak Getariarren amarrak eten, beraienak lotu eta balekumea Ondarreta hondartzaraino garraiatu zuten, Getariarren ontzia atzetik zutelarik.

Lehorrera salta zuten bai batzuk, bai besteak. Arpoiak sartuta zituen artean balekumeak. Donostiarrak galdera bota zuten, alegia, ea norenak ziren arma haiek; hara inguratu zen jendetza zen lekuko, eta getariarrak isilik gelditu zirenez, hantxe erabaki zen auzia.

Jose Manuel Sereno izeneko batez hitz egiten dute bertsoek: hark eman zituen ukabilkadak, ez zeini ez noiz eman zizkion adierazten ez direnak, Getariatik ere entzun omen ziren, eta horregatik jendearen miresmena irabazteaz gain, famatua egin zen.

Ondarretan jarri zuten balea erakusgai. Getariatik ere etorri zen jendea ikustera, baina ez zitzaien sartzen uzten sarre-
ra ordaindu gabe.

*Getariari oriek
etziran izutzen,
Antiguora juanda
balia ikusten;
pagatu gabetanik
etzinen uzten,
sartu baño lenago
bi txanpona zuzen.*

Se hizo mención de estas estrofas en el juicio, antes aludido, de 1879, en el que el abogado de los zarauztarras dijo:

... Podríamos tal vez ofrecerles para su solaz y divertimento alguno de los ejemplares de un gracioso romance vascongado a que dio margen la ocurrencia, castigo único que por medio del brazo secular de sus coblakaris acostumbra a imponer este grave, severo y morigerado país a los que fundan una ridícula vanagloria en el prurito de engalanarse con ajenas plumas...

En el Acuarium de San Sebastián se conserva una litografía de este ballenato, hecha por las indicaciones y dirección del Dr. Monedero en la *Litografía de Gordon Hermanos*, San Sebastián, en la que se dan sus medidas: longitud, veintiséis pies y nueve pulgadas; perímetro, diecisiete pies y cinco pulgadas; altura, seis pies...

El juicio de 1879 nos ofrece otra noticia interesante: *que la última ballena capturada antes de 1854 en la costa cantábrica, desde el cabo de Híguer al Machichaco, lo fue por los marineros de Zarautz a principios del presente siglo, y estuvo expuesta y fue exhibida y utilizada en la playa o arenal del mencionado puerto de Zarautz.*

Pero los declarantes no podían ser testigos oculares de aquel hecho. Por eso, uno de ellos contestó *que tenía oído que sucedió así pero no lo sabe con certeza.*

Por desgracia, las dos fuentes de información en que me he basado, las únicas que conozco, se deben a una de las dos partes litigantes. Falta la declaración de la otra, la de Getaria, que dejaría la balanza más nivelada.

Recuerdo haber oído en mi infancia, a nuestra madre, donostiarra, que en tiempos de sus mayores una cría de ballena fue muerta por los pescadores; pero que se presentó una ballena grande, seguramente la madre, que se arrimaba cuanto podía al ballenato como si quisiera llevarse consigo; y que daba tales bramidos que se oían en buena parte de la ciudad. Se trata, sin duda, de este ballenato de 1854. Por lo que ha sido para mí una satisfacción encontrar confirmación en una tradición familiar.

Bertso hauek azaldu ziren gorago aipatutako epaiketan, 1879koan, zarauztarren abokatuak honako hau esan zuteneko hartan:

Donostiako Akuarioan bada gorderik balekume horren litografía bat, Donostiako *Litografía de Gordon Hermanos*-en lanean, Monedero sendagilearen oharrez eta haren gidaritzapean egina. Hona hemen han ematen diren neurriak: luzean, hogeita sei oin eta bederatzia ontza; gerribueltan, hamasei oin eta bost ontza; garaieraz, sei oin...

Eta epaiketak beste berri interesgarri bat ematen digu; hau da, 1854a baino lehen Kantauri itsasoan, Higer lurmuturretik Matxitakora bitartean, harrapatutako azken balearena: *fue por los marineros de Zarautz a principios del presente siglo, y estuvo expuesta y fue exhibida y utilizada en la playa o arenal del mencionado puerto de Zarautz.*

Deklaratzaileak, ordea, gertakari haren begizko lekukoak ezin zitezkeen izan. Horregatik, esan zuen haietako batek *que tenía oído que sucedió así, pero no lo sabe con certeza.*

Zoritxarrez, baliatu ditudan bi informazio-iturriak, ezagutzen ditudan bakarrak, auzilarien arteko baten aldekoak dira. Bestearen deklarazioa falta da; hots, balantza berdinduagoa utziko zukeen Getariarrena.

Haurtzaroan gure amari —donostiarra zen bera— entzun izan nion bere aurrekoen garaian balekume bat hil zutela arrantzaleek; baina balea handiago bat, ama izan zitekeen bat agertu zela eta ahal bezainbat hurbiltzen zela balekumearengana, berarekin eraman nahiez bezala, eta egiten zituen marruak hiriko jende askok entzunak zituela. Inola ere, 1854ko balekume hori bera da. Horregatik, atsegin handia izan da niretzat baieztapen hori familiako tradizio batean aurkitzea.

ORIOKO BALEA

- 1 *Milla hederatzi eunda
lenengo urtean,
Mayatza-ren amalau
garren egunean:
Oriyoko erriko
barraren aurrean
balia agertu zan
beatzik aldian.*
- 2 *Aundiya bazan ere
askarra ibilliyan
buelbaka an zebillen
junda etorriyan
ondarra arrotubas
murgill igeriyan
sorriyak zeuzkan eta
arek bota naiyan.*
- 3 *Baña sorri mantzuak
egin zuten junta
gerra egin bear zala
baliaren kontra:
naiz gogor arraskatu
ez utzi, aguanta,
odola txupatubas
muturra sartuta.*
- 4 *Sorri azko zeukan da
azkure buruban
argatik ondarretan
arrazkatzen zuan:
ala ere sorririk
kendu ezin zuan
baliaren indarrak
baliyo etzuan.*
- 5 *Ikusi zutenian
ala zebilela
beriala juntziran
treñeruen billa
arpoi ta dinamitak
eta soka billa
aguro ekartzeko
etzan jende*
- 6 *Bost treñero jua ziran
patroi banarekin
jende bizkor bikaiñ
guztiz onarekin
Manuel Olaizola
eta Loidi-rekin
Uranga, Achaga ta
Manterola-rekin.*
- 7 *Bost txalupa ayetan
jun ziran gizonak
arraunian dirade
sendo ta txit onak ez
dirade balian
kontra lo egonak
dinamita ikusi
suben an zegonak.*
- 8 *Baliak egindako
salto ta marrubak
ziran izugarri ta
ikaratzekuak!
atzera eragin gabe
ango arriskubak
arpoiarekin ill zuten
an ziran angoak!*
- 9 *Bost txalopa jiranda
erdiyan balia
gizonak egin zuten
bai naiko pelia:
ikusi zutenian
ill edo itoa
legorretikan bazan
biba ta txaloa*
- 10 *Sokaz amarratuta
jarririkan zagan
jendi arraunian
gogotik asi
baña maria kontra
naiko lana bazan
ala ere eguardiko
balia erriyan zan.*
- 11 *Ikuste gauza zan
ura legorrian
osorik zaguala
ill dako egunian:
itxura galdu zuan
gero egonian.
mermatu ta txikitu
bigundu zanian.*
- 12 *Amabi metro luze
gerriya amar lodi
bustan pala lan zabal
albueta pala bi
españetan bizarrak
beste illera bi
orraziak bezela
ain zeuzkan ederki.*

13 *Begi txikiyak eta
aho txit aundiya
obeto esateko
ikaragarriya:
metro hi zabaltzen zan!
au da bai egiya,
larru guziya goma
ura animaliya!*

14 *Gauza ikuzgarriztat
egun batzuetan,
erriyaren ondoan
arranplan egontzan:
urrutikan ere
jendia etorri zan.
milla pesetarañon
diruba bilduzan.*

15 *Errematian gero
jarri zan saltzeko,
sei milla errialian
almoneratzekò:
iñork etzuan artu
balia ezertako
baña baliyo zuan
koipe biurtzeko.*

16 *Koipe biurtu eta
aren oliyua
irureun arrua zan
klase onekoa:
zazpi mila errial
aren baliyua
errematia baño
protxu obekoa.*

17 *Gorputzez zan milla ta
berreun arrua
beste berreun
ta tripa barruak
gutxi janez etzegon
batere galdua
sei pesetan
izan zan salduba*

18 *Eunda ogei duroz
balean bizarrak
aguro zaldu ziran
bere egaltzarrak
garbitu ta gordiak
dauske esurtzarrak
kontu aundiyaekin
lodita medarrak.*

19 *Egindako gastubak
pagaturik danak
laubat milla peseta
gelditu diranak:
ondo gozabitzate
Oriyotar danak
zayatu diralako
emandiye jaunak.*


20 *Gertatuba jarri det
egiyaren alde,
au orrela ez bada
jendiari galdi
biyotzes posturikan
atzegintzu gaude
biba Oriyotarrak
esan bildur gabe.*

1) El año primero de mil novecientos, el día catorce de mayo a eso de las nueve horas apareció una ballena frente a la barra de Orió. 2) A pesar de lo grande, bien que se movía, deslizándose en rápidas idas y venidas: se hundía bajo el agua levantando torbellinos de arena, pues tenía piojos y los quería sacudir. 3) Pero he aquí que los mansos piojos celebraron junta, decidiendo hacer guerra contra la ballena: por mucho que se restriegue, no ceder y aguantar, chupándole la sangre con el morro bien metido en sus carnes. 4) Como tenía muchos piojos, le picaba la cabeza: era por ello que se restregaba en la arena. A pesar de todo no conseguía desprenderse de los piojos: no servía para ello la fuerza de la ballena. 5) En cuanto vieron cómo andaba, fueron a toda prisa en busca de las traineras. Para llevar rápidamente los arpones, dinamita y muchas sogas, aquella gente no eran moscas muertas. 6) Se movilizaron cinco traineras con intrépidos, valientes y muy buenos remeros, llevando cada una su patrón: Manuel Olaizola y Loidi, Uranga con Atzaga y Manterola. 7) Los hombres que llegaron en las cinco txalupas, son remeros fuertes y de lo mejor: no estuvieron dormidos en la lucha contra la ballena, pues tuvo que vérselas con la dinamita. 8) Los bramidos y los saltos que daba la ballena eran terribles, ¡realmente de espanto! Sin echarse atrás a la vista del peligro, la mataron con el arpón. ¡Era indecible aquello! 9) Las cinco txalupas en derredor y la ballena en medio, ¡bien valientes que pelearon los hombres! En cuanto desde tierra la vieron muerta o ahogada, se desataron en vivas y aplausos. 10) Bien atada con sogas a las txalupas por detras, jubilosos se pusieron a remar; aunque la marea les era contraria, a base de mucho esfuerzo, consiguieron que la ballena llegara para el mediodía al pueblo. 11) Una vez en tierra, era cosa de verla, entera como estaba el mismo día de la muerte. Pero al estar allí, perdió su aspecto: se redujo y se empequeñeció al reblandecerse. 12) Medía 12 metros de largo, 10 de grosor o circunferencia, 4 de ancho la pala de la cola, dos palas a ambos lados, pelos de barba en los labios en dos filas, tan bien como un peine. 13) Tenía ojos pequeños, pero la boca grande, mejor dicho terrible: la abría dos metros, ésta es la verdad. Su piel toda ella era de goma. ¡Animal bien extraño! 14) Por unos días estuvo expuesta allá cerca del pueblo

como cosa digna de verse, para que echaran monedas: vino gente desde lejos y llegaron a recaudarse hasta mi pesetas. 15) Luego se puso en venta pública para subastarla por seis mil reales. Aunque nadie adquirió la ballena para nada, valía para convertirla en grasa. 16) Una vez convertida en aceite, se consiguieron trescientas arrobas de buena ley, cuyo precio resultó ser de siete mil reales, superando así la propuesta de subasta. 17) Su cuerpo pesó mil doscientas arrobas, otras doscientas arrobas su lengua y sus tripas: seguro que no estaba debilitada a falta de comer. Fue vendida a seis pesetas la tinaja. 18) En ciento veinte duros se vendieron sus barbas; en un voleo se llevaron sus aletazas; cada uno de sus huesos, pequeños y grandes los conserva la gente con sumo cuidado una vez limpiados debidamente. 19) Pagados los gastos todos, quedaron unas cuatro mil pesetas de ganancia: que les aproveche a todos los oriotarras, pues les ha dado el Señor porque se esforzaron mucho. 20) He contado lo sucedido en testimonio de la verdad; por si no fue así, no hay más que preguntar a la gente. Muy alegres y satisfechos de corazón, digamos sin miedo: ¡Viva los oriotarras!



1912. urtean enbata sonatu hartan galdutakoen oroimenez, Monolito hilarria duela.
Monolito con lápida en recuerdo de las víctimas de la trágica galerna de 1912.



«Marinela» Gipuzkoaren alegoria.
Txurrukaren monumentuan, Areetan.

Alegoría de Gipuzkoa «la marinera»
en el monumento a Evaristo de Churrua en las Arenas.

MIRADA ESTÉTICA AL MUNDO DE LAS REPRESENTACIONES MARINAS

por EDORTA KORTADI

NOTA DEL EDITOR

E

Este trabajo presenta una especie de índice visual de imágenes susceptibles de una lectura estética, sugerencias de carácter fragmentario, una secuencia de pensamientos-miradas surgidos de la lectura de las imágenes marítimas.

MIRAR Y CONTEMPLAR

El mar condiciona la mirada

El mar se mueve

Mirar y contemplar las obras de la Naturaleza, siempre resulta hermoso y sorprendente, pero quizás esta mirada resulta más compleja, profunda y misteriosa cuando se contempla el mar. El mar se mueve... como el aire, el fuego y la tierra misma. Ya lo decían los filósofos presocráticos y lo siguen afirmando autores y artistas contemporáneos como Bachelard, Savater, Chillida y Tapies, Amarica, Salís, Martiarena, Gracenea y muchos otros.

El mar en su realidad física

¿Hay formas más bellas, hermosas y sugerentes que las creadas por la propia naturaleza?

Una mirada profunda y contemplativa de la geomorfología de la costa vasca, puede llevarnos a cada uno de nosotros a un gran gozo para los sentidos y en especial para

ITSASOAREN IRUDIKAPENAK ESTETIKAREN IKUSPEGITIK

EDORTA KORTADI

ARGITALDARIAREN OHARRA

L

Lan honek estetikoki irakur daitekeen irudi-aurkibide moduko bat du; iradokizun zatikatuak dira, itsasoko irudiak irakurtzetik sortutako pentsamendu eta begiraden segida bat.

BEGIRATZEA ETA KONTENPLATZEA

Itsasoa, soaren baldintzatzaile

Itsasoa higitu egiten da

Naturaren obrak begiratzea eta kontenplatzea beti da eder eta harrigarri, baina begirada hori are konplexu, sakon eta misteriotsuago bihurtzen da agian kontenplazio-gaia itsasoa denean. Itsasoa higitu egiten da, airea, sua eta lurra bera bezalaxe. Jakina, ez da gauza berria, filosofo presokratikoek esan zuten eta idazle nahiz artista garaikideek baietz diote, esaterako, Bachelard eta Savater, Txillida eta Tapies, Amarika, Salis, Martiarena, Grazenea eta beste askok.

Itsasoa bere errealitate fisikoan

Ba al dago naturak berak sortutako formak baino iradokiztaileago, politago eta ederragorik?.

Gozatu ederra izan daiteke Euskal Herriko kostalde geomorfologikoari kontenplaziozko begirada sarkor bat ematea, gutako bakoitzaren zentzumenentzat, ikusmena

la vista y el oído. Los grandes artistas abstractos han sido los grandes contemplativos de la materia bruta, viva e inteligente en sí misma: Tapies, Chillida, Zumeta, Sistiaga. Sus obras son como estratos geológicos de la naturaleza misma. Ellos nos han enseñado a mirar y observar las cosas con una mirada profunda, directa, distinta.

El mar desde dentro

El mar contemplado y visto desde la tierra o desde la mar misma son cosas bien diferentes y distintas. Pocos son los artistas vascos que lo han contemplado desde dentro; entre éstos conviene destacar al donostiarra Gonzalo Chillida. La mayoría lo han contemplado desde el monte, la costa, la playa o la villa misma, casi siempre lo han pintado desde tierra firme, como sin querer adentrarse en las profundidades de sus riquezas y de sus maravillas.

El mar desde la orilla

Algunas de las visiones del mar más jugosas y modernas vistas desde la playa y la orilla han sido las de Gonzalo Chillida y José Gracenea. Ya con anterioridad pintores como José Salís y Fernando Amarica habían contemplado el mar con esta misma visión frontal, calma y pacífica. Se trata de una visión poética e idealizada de la realidad, a menudo más agitada, brava y brutalista.

El mar duro y cruel

Además de las visiones poéticas e idealizadas del mar transmitidas por algunos artistas, resulta ser también una realidad enormemente dura y cruel para los hombres de mar y sus familias. Hundimientos, naufragios, reyertas, odios, desapariciones, horfandades y viudedades, ansias y esperas, alcoholismo y prostitución, son parte del mismo tema y así ha sido plasmado también con realismo y crudeza en diversos momentos de la historia artística.

LA REPRESENTACIÓN GRÁFICA PLANA DEL MAR

La mirada del cartógrafo

La representación gráfica plana del mar y de sus costas ha sido una de las aventuras plásticas e ideológicas más importantes, atractivas y creativas de los marinos de todas las épocas. El oficio, y el arte del cartógrafo se mueve a caballo entre la investigación, la representación y la creación mismas.

Existen bellísimos ejemplares de mapas y rutas marítimas que hacen las delicias de expertos, artistas y cualquier hombre o mujer sensibilizados con la mar y las marinas.

eta entzumenarentzat bereziki. Abstraktuaren artista handiak berezko materia gordin, bizi eta adimenduna begiesten apartak izan dira: Tapies, Txillida, Zumeta eta Sistiaga. Euren obrak izadiaren beraren geruza geologikoaren antz-antzekoak dira. Horiek irakatsi digute gauzak erreparatzen: begirada sarkor, zuzen eta bestelakoa ematen.

Itsasoa barrutik

Ez da gauza bera, ezta urrik eman ere, itsasoa lurretik kontenplatzea edo itsasotik bertatik ikustea. Ez dira asko bertatik begietsi duten artistak, baina nabarmentzekotan Gonzalo Txillida litzateke horietako bat. Gehienek menditik, ertzetik, hondartzatik edo herrian bertatik begiratu izan dute eta gehienetan margotu ere, lurretik margotu izan dute, haren aberastasun eta miragarrietan sartu nahi ezean bezala.

Itsasoa ertzetik

Gonzalo Txillida eta Jose Grazenearen lanak dira hondartzatik edo ertzetik ikusiz egindako itsasoaren irudikapenik mamitsuenak eta modernoena. Lehendik, Jose Salís eta Fernando Amarikaren antzeko margolariek begietsia zuten itsasoa aurrez aurreko ikuskera bare eta baketsuan. Errealitatearen ikuspegi poetiko idealizatu bat da; sarritan bestelakoa den itsaso ausart eta zakar batena, alegia.

Itsaso gogor eta gupidagabea

Zenbait artistek helarazi dizkiguten ikuspegi poetikoez eta idealizatu ez gain, itsasoa oso errealitate gogor eta gupidagabea ere bada, itsasgizonentzat eta euren familientzat. Ez dira gai beraren alderdiak baino hondoratzeak eta urperatzeak, liskar, gorroto eta desagertzeak, zurztasunak eta alarguntzak, larriak eta itxaropenak, alkoholismoa eta prostituzioa, eta halaxe jaso izan dituzte artista euskaldunek, errealismoz eta laztasunez, artearen historiaren hainbat alditan, hala nola, Arteta, Tellaetxe, Arrue, Arozena eta Salaberriak.

ITSASOAREN ADIERAZPEN GRAFIKO LAUA

Kartografoaren begiratu

Itsasoaren eta itsasertzaren adierazpen grafiko laua izan da aldi guztietako marinelen abentura plastiko eta ideologiko nagusia, erakargarria eta sortzaileena. Kartografoaren lanbidea eta artea batetik besterako trostan mugitzen da, ikerketa, irudikapena eta sorkuntza beraren artean.

Badaude mapa eta itsasbide eder-ederrak, adituen, artisten eta itsasoarekin eta nabigazioarekin sentikorturik dau den gizon-emakumeen gutziak egiten dituztenak.

La dificultad de pintar el mar

Los repertorios iconográficos marítimos no han tenido la presencia suficiente en el arte universal ni tampoco en el País Vasco, que este sector por su peso específico tiene en la vida socioeconómica. Parece existir un rechazo mental como aseguran los psicoanalistas a cualquier representación de ambientes y formas en movimiento, escurridizas, y por ende deleznable y no definitivas.

Uno de los mejores críticos e historiadores del Arte Vasco, Juan de la Encina, aseguraba, que ante una naturaleza tan hermosa y poderosa, difícilmente podían sustraerse a representarla los artistas. El paisaje marítimo sin embargo, no creemos haya tenido el debido tratamiento y peso en la iconografía general paisajística.

La iconografía popular entre kitsch y cultista ha logrado algunas de las más bellas y franciscanas imágenes de barcos y tripulaciones marinas. J.M. Gabantxo y el “Arrantzale de Hondarribia” son dos magníficos exponentes de lo que decimos.

Los faros

La arquitectura de Faros desarrollada en todo el litoral Cantábrico ofrece múltiples y sugerentes variantes y muy diversas tipologías. Recientemente el pintor Eduardo Sanz ha hecho una interesante lectura pictórica de las mismas.

La costa y el litoral

Costas y litorales han tenido sin embargo, mayor suerte en la iconografía vasca. A raíz de la irrupción de los grabadores franceses del siglo XIX pueblos y villas costeras, escenas de puerto y figuras marineras tendrán una notoria presencia en la pintura y la escultura vasca.

Playas y litorales vascos son disfrutados y gozados a lo largo del verano por miles de autóctonos y de turistas. El mar vasco se ve siempre acompañado y enmarcado por bellísimos paisajes de vegetación, tierra y roca. El hombre del siglo XX ha recuperado de una manera activa y a veces hasta agresiva los aspectos lúdicos que le ofrece la naturaleza.

El mundo creencial marino

Escapularios, medallas, cruces, signos... iconografía popular, arte suntuario y corporal, religioso y vital que abunda entre las gentes del mar o la de oficios aledaños.

En la mayoría de las iglesias y ermitas del litoral vasco, la presencia de exvotos marineros de gran belleza y precisión técnica arrojan un componente vital y cinético a caballo entre la religiosidad popular, la tradición cultural y la etnografía.

Puntos de vista y visiones

Los modernos medios de locomoción, aviones, helicópteros, trenes rápidos, coches y motocicletas, permiten al ser humano lograr y poseer miradas inéditas y nuevas. El mar y la costa, ciudades y villas marinas son contempladas en sorprendentes escorzos y visiones cercanas a

Itsasoa margotzeko zailtasuna

Itsasoari buruzko ikonografia sailek ez du nahikoa presentzia izan arte unibertsalean, ezta Euskal Herriko artean ere, sektore honek bizitza sozioekonomikoan karga espezifiko bat izan arren. Badirudi, psikoanalistek dioten moduan, badela giro eta forma higikorrek irudikatze errefusa mental bat, iheskorak direla-eta, irristakor eta iragankor izateagatik.

Euskal Herriko Artearen kritikari eta historialari onenen arteko Juan de la Encinak zioenaren arabera, artistek nekez utz zezaketen irudikatu gabe hain izadi eder eta ahaltzu bat. Hala ere, gure ustez, itsasoko paisaiak ez du izan behar besteko aitopen eta kargarik paisaiaren ikonografia orokorrean.

Herri irudigintzak, kitsch-aren eta kultistaren artekoak, erdietsi izan ditu itsasontzi eta itsasoko tripulazioaren irudirik ederren eta bitxiak. J.M. Gabantxo eta *Hondarribiko arrantzalea* dira esaten ari garen horren adierazle bikainak.

Faroak

Kantauri itsasertz guztian hedaturik dauden faroen arkitekturak aldaera ugariak eta iradokitzaileak izateaz gain, oso tipologia desberdinak ematen ditu. Duela gutxi Eduardo Sanz margolariak beroien irakurketa piktoriko oso interesgarri bat egin du.

Kostaldea eta itsasertza

Hala ere, kostaldeak eta itsasertzak zorte handigoa izan zuten euskal ikonografiaren alorrean. XIX. mendean grabatzaile frantsesak sortuz geroztik, kostaldeko herri eta hiriek, portu eta itsasoko eszenek leku nabarmena izan zuten euskal pinturan eta eskulturan.

Euskal Herriko hondartzetara eta itsasertzetara milaka pertsona biltzen dira gozatzerantz, bertatik nahiz kanpotik, uda osoan zehar. Euskal Herriko itsasoak paisaia ederrak izan ohi ditu inguruan, landarez lurrez eta haitzez dotoretua azaltzen baita beti. XX. mendeko gizakiak era aktibo —eta zenbaitetan gogor— batean bereganatu ditu naturak ematen dizkion jolaserako alderdiak.

Marinelen sinesmen-mundua

Eskapularioak, medailak, gurutzeak, ikurrak eta abar ugari dira herri-ikonografiaren barruan, luxuzko artea eta gorpuztekoa, erlijiozkoa eta bizia, itsasgizonen artean eta gertuko lanbideetan.

Euskal itsasertzeko eliza eta ermita gehienetan ikusten diren marinelen zinoparien edertasun eta doitasun teknikoak osagai bizi eta zinetiko bat jaurtitzen du bai herri-sineskerara, bai kultura- eta etnografia-tradiziora.

Ikuspegiak eta ikuskariak

Lokomozio-bide berriek, hegazkinek, helikopteroek, abiadura handiko trenak, autoek eta motorrek begiratu ezezagun eta berrien aukera ematen diote gizakiari. Itsasoak eta itsasertzak, kostaldeko hiri eta herriak kontenplatu dira irudibildu eta ikuspegi harrigarrietan, margolan abstraktu

la pintura abstracta e hiperrealista. Obras de Mondrián, Chillida, Gracenea, Arocena y Donezar.

Arte y tradición, vanguardia y etnografía parecen casarse y enlazarse en múltiples representaciones marinas populares y de reconocidos artistas: Chillida, Basterrechea, Sistiaga, Gracenea, Regoyos, Martiarena.

José Gracenea y Gonzalo Chillida han sido dos de nuestros pintores contemporáneos más obsesionados con la captación del mar en la orilla, las costas y la playa. Realismo poético o abstracción de la realidad han sido dos prácticas utilizadas sensible e inteligentemente por estos artistas.

Mirada a la fauna marina

El hombre primitivo por religión o por magia no huyó nunca de la representación iconográfica de los animales marinos. Los estilizados diseños de Altxerri y Ekain lo confirman.

Los repertorios zoomorfos y fitomorfos marinos han sido plasmados con magia y fantasía por algunos pintores adscritos al realismo de la década de los 70: José María Zavala y Bonifacio Alfonso son algunos de ellos.

La huella del animal y del ser humano realizada conscientemente aparece muchas veces en algunas de las obras de los artistas vascos contemporáneos más avanzados. Darío Urzay, Juan Luis Goenaga, Eduardo Chillida. Parecen trozos tomados de la misma realidad. Ésta muchas veces trabaja mucho más cariñosa y pausadamente que la misma mano del hombre.

El rostro humano, del hombre y de la mujer, del joven y del anciano ha corrido mejor suerte que el propio paisaje marino. Múltiples artistas de casi todos los lenguajes, dibujantes, grabadores, pintores y escultores han tratado de captar y penetrar en estos rostros horadados por el mar, el viento y el salitre. Tan profundos y ensimismados como la mar misma.

El duro trabajo y las faenas de los hombres del mar han sido magníficamente plasmadas también por muchísimos artistas: Arteta, Zubiaurre, Tillac destacan entre ellos.

El arrantzale, el pescador mar adentro, o en tierra, ha sido plasmado en muchas obras de arte al igual que los puertos, las embarcaciones o los útiles de pesca.

Temas marineros

Las representaciones de temas marinos, mares, barcos, lanchas y utensilios están presentes en el arte y en la vida del País Vasco ya desde la Edad Media casi sin interrupción hasta nuestros días. El hombre vasco, asegura Caro Baroja, ha procurado siempre a lo largo de su historia que lo que saliese de sus manos, fuera bello, además de que sirviera en la vida.

Uno de los sueños del hombre siempre ha sido volar y nadar como los pájaros y los peces. La satisfacción en el rostro de muchos de los constructores de barcos ante su nave-artilugio no tiene desperdicio.

La visión central desnuda y directa de muchos de los apuros de trabajo en el mar harían las delicias de artistas con-

eta hiperrealistatetik hurbil daudenetan: Mondrian, Txillida, Grazena, Arocena eta Donezarren obrak.

Artea eta tradizioa, abangoardia eta etnografia, elkar hartuta azaltzen dira itsas irudikapen herrikoietan nahiz izen handiko artisten lan ugarietan: Txillida, Basterretxea, Sistiaga, Grazena, Regoyos eta Martiarena.

Jose Grazena eta Gonzalo Txillida, bi margolari hauek izan dira, pintura garaikidearen barruan, itsasoa ertzetik, kostaldetik eta hondartzatik margotuzale amorratuena. Errealismo poetikoa ala errealitatearen abstrakzioa izan dira artista horiek sentiberatasunez eta adimenez erabili izan dituzten bi praktika.

Begirada bat itsas faunari

Antzinako gizakiak, erlijioagatik zela edo magiagatik zela, ez zuen inoiz baztertu itsasoko animalien irudikapen ikonografikorik. Altxerri eta Ekaingo diseinu estilizatuak dira horien lekuko.

Magia eta fantasia handiz irudikatu zituzten itsasoko zomorroak eta fitomorfoak 70eko hamarkadako errealismo-ara atxikitako hainbat margolarik: Jose Maria Zabalak eta Bonifazio Alfonsok, besteak beste.

Animalien eta gizakiaren oinatzak, kontzienteki egindakoak, askotan azaltzen dira artista garaikide aurreratuenen zenbait lanetan, hala nola, Dario Urtzelai, Joan Luis Goenaga edo Eduardo Txillidaren lanetan. Errealitatetik hartutako zatiak dirudite. Izan ere, horrek gozoago eta lasaiago egiten du lan gizakiaren eskuak berak baino.

Giza aurpegiak, gizonarenak eta emakumearenak, gaztearenak eta zahararenak zorte hobea izan dute itsas paisaiek baino. Ia hizkera guztietako artistak, hots, marrazkilari, grabatzaile, margolari eta eskulturagileak saiatu izan dira itsasoak, haizeak eta kresalak zeharkatutako aurpegi horietan igartzen, eta itsasoa bera bezain sakon eta bilduak diren sartzan.

Eta artista asko eta askok bikaintasunez irudikatu dituzte itsasgizonen lan eta zeregin gogorrak. Nabarmentzekoak dira Arteta, Zubiaurre eta Tillac, besteak beste.

Arrantzalea, itsasgizona itsaso zabalean edo lehorrean, artelan ugaritan irudikatu izan da, portuak, itsasontziak edo arrantza-aparailuak irudikatu diren bezalaxe..

Itsasoko gaiak

Itsasoko gaien irudikapenak —itsasoak, ontziak, txalupak eta lanabesak— ia etenik gabe daude Erdi Arotik hasi eta gaur egunera arte Euskal Herriko artelanetan eta bizitzan. Euskalduna beti saiatu izan da, Caro Barojaren hitzetan, historian zehar bere eskuen lana bizitzarako baliagarria ez ezik, ederra ere izan zedin.

Gizakiaren ametsetako bat izan da beti txoriak bezala hegan eta arrainak bezala igeri egitea. Ontzigile askok bere ontzi-tramankuluaren aurrean duen aurpegiko atsegina oso osorik aprobetxatzekoa da.

Itsasoko lanabes askoren ikuspegia, erdiz erdi eta euren soiltasunean jarriek ederki gozaraziko zituen artista garai-

temporáneos como Beyus, Tapiés y Goenaga. La fuerza del color y de la forma, la belleza del rayado natural y las texturas hablan por sí mismas. ¿Se trata de una obra de arte conceptual, o la propia realidad desborda al arte y a la pintura fabricadas por el hombre?

La representación de naves, barcos y toda clase de barcas está muy presente en los temas marinos tanto en la iconografía culta como popular a lo largo de toda la historia humana.

Temas y personajes

Es sobre todo en las representaciones emblemáticas escudos, monumentos, vidrieras y grandes frisos, donde el artista vasco ha desarrollado temas y personajes marinos y casi siempre de manera simbólica y un tanto puesta.

En puertos y poblaciones marítimas abunda la iconografía escultórica de arrantzales, pescadores, patronos, marinos, sirenas y vírgenes católicas. Entre la figuración y el realismo popular andan las poéticas más utilizadas y mejor comprendidas.

Reflejo arquitectónico

Estructuras y arquitecturas marítimas y navieras han pasado como por transplante simbólico y mimético a arquitecturas populares de edificios civiles y de ermitas. Artesonados y entramados arquitectónicos llenos de simplicidad, de rotundidad, de vida.

Un icono fronterizo

«¿No hay en España, lere? ¿Puente colgante, lere? ¿Más elegante, lere? Que el de Bilbao». La sorpresiva y elegante arquitectura industrial del puente colgante de Bilbao, obra de Alberto Palacios es una manifestación arquitectónica en torno al mar y la ría de primera categoría.

Folclore

También el folclore ha cuajado en bailes y costumbres marineras. Los bailes de las «Sardineras de Ondarroa» y «La Kaxarranka de Lekeitio», las regatas de Hondarribia y Donostia, la fiesta del ganso de Lekeitio. Danza, deporte, rito...

kideak: Beyus, Tapiés eta Goenaga. Kolorearen eta formaren indarra, berezko marraduraren edertasunak eta egiturak ez dute azalpenik behar. Artelan kontzeptual bat al da edo errealitateak berak gainditzen al du gizakiak egindako artelana eta pintura?.

Marinelen gaietan oso daude presente ontzien, itsasontzien eta era guztietako gabarren irudikapenak giza historia osoan zehar, nola ikonografia landuan hala herri-ikonografian.

Gaiak eta pertsonaiak

Irudikapen enblematikoetan —ezkutu, monumentu, beirate eta friso handietan— garatu ditu artista euskaldunak batez ere itsasoko gaiak eta pertsonaiak, eta ia beti modu sinboliko eta apur bat jantzian, garatu ere.

Itsasoko portu eta herrietan asko dira arrantzaleen, patroiaren, uhandre eta birjina katolikoaren eskultura-irudiak. Irudigintza eta errealismo herrikoia berrun daude poetikaririk erabilienak eta ongien ulertuak.

Isla arkitektonikoa

eraikin zibil eta ermitetako herri-arkitekturara eraman izan dira itsasoko eta ontzigintzako egiturak eta arkitekturak, landatze sinboliko eta mimetiko gisa, eraman ere. Arkitekturako kasetoidurak eta armazoiak dira, soiltasunez, zehaztasunez eta bizitasunez beteak.


Mugako ikonoa


«¡No hay en España, lere! ¡Puente colgante, lere! ¡Más elegante, lere! ¡Que el de Bilbao, lere!» . Bilboko zubi esekiko industria-arkitektura harrigarri eta dotorea, Alberto Palaciosen egindakoa, itsasoaren eta itsasadarraren inguruko arkitekturaren lehen mailako irudikapen bat da.

Folklore

Folklore ere hezurmamitu izan da marinelen dantza eta usadioetan: «Ondarroako sardina-saltzaileak», «Lekeitioko Kaxarranka», Hondarribiko eta Donostiako traineruak, Lekeitioko Antzararen Eguna. Dantza, kirola, erritu...












Alberto Arrue.




Aurelio Arteta.





ECOS DE LA PRESENCIA VASCA EN EL ATLÁNTICO NORTE



EUSKALDUNEN PRESENTZIA IPAR ATLANTIKOAN OIHARTZUN





BALLENEROS VASCOS EN TERRANOVA. ECOS LITERARIOS

por JERARDO ELORTZA

E

En reiteradas ocasiones se ha recordado que existen pocas menciones en la literatura antigua sobre las innumerables aventuras que vivieron los vascos en el mar y en la pesca. Es cierto que aunque sabemos que ese apartado de nuestra historia, que se remonta mucho tiempo atrás, fue una época bastante opulenta (1), no quedan demasiados vestigios escritos tanto en euskera como en castellano —a excepción de documentos de compraventa, tratos, testamentos y similares—. Por tanto, su inexistencia no es absoluta, puesto que contamos, entre otros, con los famosos bertsos que Joanes Etxeberri de Ziburu publicó en el siglo XVII sobre la pesca de la ballena —tan mencionados desde entonces— (2). No obstante, estos bertsos-rezos de Etxeberri y/o otros compuestos posteriormente (3) son excepciones, al menos teniendo en cuenta que las labores de pesca han impelido y empleado a miles y miles de marineros vascos durante muchos siglos y generaciones.

Además de corsarios de algunos puertos y ¿? del resto de ladrones, por otro lado, también había un tipo de pesca tan popular como productiva que tuvo un gran éxito en todo el litoral de Euskal Herria: en concreto aquella que se practicaba para la caza de la ballena y la pesca del bacalao en el norte de América, especialmente en aguas de Terranova y los alrededores de Labrador. Aunque al principio predominaban los marineros de Gipuzkoa y Bizkaia en esos oficios, más adelante, debido a situaciones y conflictos políticos, los marineros de Lapurdi principalmente se dedicaron a la pesca en esos parajes lejanos (4). ¿Acaso nuestros escritores de épocas anteriores no quisieron de ningún modo que apareciera este atractivo tema sobre el mar que se ha eliminado a menudo en la literatura de otros países? En los primeros siglos de la literatura vasca, al menos fuera del ámbito religioso, apenas

EUSKAL BALEONTZIAK TERNUAN. OIHARTZUN LITERARIOAK

JERARDO ELORTZA

E

Euskaldunek itsasoan eta arrantzan izandako gora-behera ugariei buruzko aipamen literario zaharren urritasuna behin baino gehiagotan gogoratua izan da. Egia esan, gure historiaren atal hori aspalditxokoa eta oparo samarra dena jakin arren (1), ez zaiagu euskaraz nahiz erdaraz —erosketa, salmenta, tratu, testamentu eta horrelakoen agiriak izan ezik— idatzitako aztarna gehiegi geratu. Gabezia ez da, horregatik, erabatekoa, hor baitditugu, besteak beste, Ziburuko Joanes Etxeberri XVII. mendean kaleratu eta harrez gero makina bat bider aipatu diren balearen arrantzari buruzko bertso ospetsuak (2). Dena den, Etxeberriren bertso-otoitz hauek edo eta geroago sortutako beste batzuk ere (3) salbuespen gisa agertzen zaizkigu, arrantza-lanek hainbeste mende eta belaunalditan zehar milaka eta milaka euskal marinel eta itsasgizon behartu eta enplegatu zituztela kontutan izanik, behintzat.

Portu batzuetako korsario eta osterantzeko lapurren unta aberatsez gain, bazen, bestalde, Euskal Herriko itsas-hegi osoan izugarritzko arrakasta lortu zuen arrantza-mota famatu bezain emankor bat: Ameriketako Ifarraldean, Ternua (Terranova) eta Labrador inguruetako uretan batez ere, balea zein bakailaua harrapatuz burutzen zena, alegia. Hasieran gipuzkoar eta bizkaitarrak nabarmendu baziren lanbide horietan, gerora, arazo eta egoera politikoak zirela bide, lapurtarrek ihardun zuten gehien bat urrutiko paraje haietan (4). Beste zenbait herritako literaturatan sarritxo kanporatu izan den itsasgai erakargarri hau ez otevv zuten, bada, gure aintzinako idazleek inolako moduz azaltzerik nahi izan? Euskal Literaturaren lehenengo mendeetan, erlijioari dagokion esparrutik kanpora behinik behin, nekez aurki daiteke hitz-lauz moldaturiko kontaerarik. Mundu horri prosaz heltzeko zegoen nagikeria (edo ezintasuna) nabari samarra zen. Ez, ordea, bertsoetan izanez gero. Hartarako zaletasuna aspaldidanik frogatua dugu euskaldunok (5). Ez da harritzekoa, beraz, Ternuaz dugun lanik irakur-

se encuentran historias narradas en prosa. Era bastante evidente la desidia (o incapacidad) existente en aquella época para plasmar ese mundo en prosa. No sin embargo en bertso. La afición de los vascos para los bertso se ha demostrado desde hace tiempo (5). Por lo tanto, no es de extrañar que la obra más legible sobre Terranova sea en forma de bertso de palabras bien medidas, es decir, de bertso redondos.

No obstante, estos bertso que relatan las adversidades en el mar de nuestros marineros en su viaje hacia las Américas y/o los arduos trabajos que desempeñaban aquellos pescadores en tierra y aguas de la actual Canadá no han tenido repercusión entre nosotros, pese a haberse escrito hace dos o tres siglos, dado que, según mi conocimiento, no se han publicado nunca (6). En la actualidad se conservan en el archivo del Museo Vasco de Baiona, en las primeras páginas de un antiguo manuscrito que reúne algunos otros poemas.

MANUSCRITO

Yo encontré los bertso que tratan sobre Terranova de la mano de Selma Huxley. Esta investigadora inglesa-canadiense que estudia los vestigios de los pescadores vascos en Norteamérica, sin embargo, recibió la primera noticia sobre estos poemas desde Canadá (7). Al parecer la fotocopia que nosotros recibimos de América, según esa información, fue tomada de un manuscrito conservado en el Museo Vasco de Baiona. Mientras transcribía dicha copia, tuve dificultades en la lectura y varias dudas y, a fin de aclarar estos obstáculos, Selma y yo viajamos a Baiona y tuvimos la oportunidad de conocer el texto original (8).

Este manuscrito del museo es un pequeño libro que mide 155 mm. x 110 mm. En la cubierta reforzada con papel más antiguo no se aprecia ningún título en particular; no obstante, contiene la siguiente información: *de 1 a 53 ojos escritas desde Partida (sic) / Tristia Ternuara hasta Luyetan dire mundu / huntan bici, Sasia badezate Cumpli / eta Beththe hain gustu hona. P. S.* Por lo tanto, como se indica la portada, es una colección de poemas de 53 hojas o 107 páginas escritas (9). Las palabras *Partida Tristia Ternuara (...)* *hain gustu hona* que ahí se mencionan, aunque algo modificadas, corresponden al título del primer poema y al final del último. En la parte inferior apreciamos un sello redondo y bastante grande, rodeado de la frase en latín VIRTUS UNIUS DISIPAT HOSTES COLECTOS y culminado por una corona; en el círculo interior, formando un anagrama (10) se contemplan unas letras de gran tamaño y bajo el sello la expresión *Domine Dirige nos*. En la primera página del interior del libro se formula lo siguiente a modo de título: *Recueil de quelques pieces de vers / anciens et nouveaux / 1798*. Bajo dicho aniversario, con letra y tinta distinta, naturalmente, la firma del bibliófilo Manu de la Sota (11).

garriena ongi neurtutako hitzez, hots, bertso borobiletan taxuturik egotea.

Alabaina, gure marinelek hemendik Ameriketarunzkoan itsasoan zeuzkaten arriskuak edo eta egungo Canada-ko lur eta uretan arrantzale haiek egiten zituzten lan neko-soak kontatzen dizkiguten bertso haiek ez dute gure artean oihartzunik izan, duela bi edo hita mende onduak izan arren, ez direlako, nik dakidanez, sekula ere argitaratu (6). Orain Baionako Euskal Erakustokiko artxibategian gorde-tzen dira beste zenbait poema dituen manuskrito xahar baten lehen orrialdeetan.

ESKUIZKRIBUA

Nik, neuk, Ternuaz ari diren bertsoak Selma Huxley anderearen bitartez eskuratu nituen. Euskal arrantzaleek lfar-Amerika aldean utzitako lorratzak arakutzen ari zaigun ikerlari angeles-canadiar honi, berriz, Canada-tik iritsi zitzaion poema hauei buruzko lehen albiste (7). Guk Ameriketatik jasotako fotocopia, hango informazioaren arabera, Baionako Euskal Museoa gordetako eskuizkribu batetatik aterea ornen zen. Kopia horren transkribaketa-lanetan ni-harduela, irakurketa-zailtasun eta zalantza batzuk azaldu zitzaizkidan eta, horiek argitu alde, Selma eta biok Baionara jo eta jatorrizko testua ezagutzeko aukera izan genuen (8).

Museoko eskuizkribu honek 155 mm. x 110 mm. neurtzen dituen liburuska bat osatzen du. Paper zaharragoaz gogortutako azalean ez dauka aparteko izenbururik; hala ere, honoko argibide hauek dakartza: *de 1 a 53 ojos escritas desde Partida (sic) / Tristia Ternuara hasta Luyetan dire mundu / huntan bici, Sasia badezate Cumpli / eta Beththe hain gustu hona. P. S.* Beraz, azalean adierazten zaigunez, 53 orri edo idatzitako 107 orrialde dituen poema-bilduma bat dugu (9). Hor aipatzen diren *Partida Tristia Ternuara (...)* *hain gustu hona* hitz horiek, zertxobait aldaturik, lehen poemaren izenburuari eta azkenaren amaierari dagozkie. Behekaldean zigilu borobil eta handi samar bat ageri da, inguruan VIRTUS UNIUS DISIPAT HOSTES COLECTOS latinezko esaldia eta goian koroa bat dituelarik; barruko zirkuloan, anagrama bat eginaz (10), letra handi batzuk azaltzen dira eta zigiluaren azpian *Domine Dirige nos* esaldia. Barnekaldeko lehen orrialdean izenburu antzeko hau dator: *Recueil de quelques pieces de vers / anciens et nouveaux / 1798*. Urtemuga horren pean, letra eta tinta desberdinez, jakina, Manu de la Sota liburuzalearen sinadura (11).

ÉPOCA, TEMAS, EXTENSIÓN Y OTROS ASPECTOS

Tal y como nos indica ese título en francés, consiste en una colección de varios bertsos pertenecientes a épocas diferentes. La mayoría de ellos se remontan al siglo XVIII, son poemas compuestos entre 1766-1798. Sin embargo, se recogen algunos poemas compuestos posteriormente —en concreto durante los primeros años del siglo XIX— y, al parecer, también de épocas más antiguas; éstos últimos no hacen mención a un año específico, pero teniendo en cuenta los temas, la escritura y que se incluyen al principio de la colección, no es de extrañar que pudieran pertenecer a finales del siglo XVII o a la primera mitad del siglo XVIII. Entre estos poemas no fechados se encuentran precisamente los poemas que tratan sobre aventuras de Terranova y aquellos que relatan las penas del navío *Zarrantza*.

El intervalo de tiempo en el que se escribieron estos poemas es amplio, si bien no son menos ajustados los ámbitos sobre el tema, medida, extensión y otras pinceladas. En cualquier caso, dado que este tipo de libro no es el más apropiado para ello y que estudiaré estos aspectos con más detenimiento en un trabajo que mencionaré más adelante (12), en esta ocasión no ofreceré una descripción detallada de esta colección de bertsos. Hay que señalar, sin embargo, que reúne más de 30 poemas, que en total forman más de 450 estrofas (13). Es poesía narrativa sobre todo; poemas que describen sucesos, hechos, disputas, conflictos, pueblos, personajes, etc. de aquella época. A menudo se mencionan esos lugares o personas a través de bertsos de alabanza: entre los más alabados encontramos, por ejemplo, personajes como Luis XIV, la mujer y el hijo mayor de Luis XV, el conde de Estaing y los Jesuitas vascos, incluidos Kardaberaz, Meaker (sic) y Mendiburu; y pueblos como Hendaye, Donibane Lohizune y Ossès. Pero tampoco faltan los pueblos enfrentados o los temas tratados con burla: a modo de ejemplo, Donibane propiamente o Jatsu y Haltsu, en el primer caso, o la inmigración de las damas de Donostia, el obispo en sentido alegórico y el atuendo femenino, en el segundo caso.

Las posibilidades de medida de los bertsos no eran abundantes, pero tampoco pobres o escasas. Aunque algunas medidas son bastante conocidas (similares a *zortziko txikia* —octavilla—, coplas antiguas, etc.), también encontramos curiosos tipos de estrofa (parecida al tipo de estrofa que se emplea en la canción navideña *Oi Betlehem!*, por ejemplo). Se podría decir lo mismo sobre la extensión de los bertsos: muchos poemas tienen alrededor de 8-12 estrofas, sin embargo, también encontramos poemas bastante más largos (de 31 o 65 estrofas) y otros muy cortos (de 1 o 2 estrofas). ¿De quién o de quiénes? Algunos poemas pertenecen a escritores conocidos: Larregi de Basusarri (*D'Estaing Jaun Contearen Laudorioac*) o Jean Robin de Donibane (*Luxe de 1808*, entre otros). En el caso de muchos poemas, sin embargo, es imposible relacionarlos con sus autores por el momento.

Finalmente, sobre las editoriales se puede avanzar la siguiente información: algunos de los bertsos recogidos en

GARAIA, GAIK, HEDADURA ETA BESTE

Frantsesezko izenburu horrek adierazten digunez, garai desberdinetako zenbait bertsoen bilduma dugu. Gehienak XVIII. mendekoak, 1766-1798 urteen artean moldaturiko poemak. Badira, ordea, geroagoko banaka batzuk —XIX. mendearen lehen urteetakoak, alegia— eta, dirudenez, baita aintzinagokoak ere; azken hauek ez dakarte inolako urte-aipamenik, baina gaiak, idaztanka eta bildumaren hasieran datozela kontutan izanik, XVII. mendearen ondarrukoak edo XVIII.aren lehen erdialdikoak suertatuko balira, ez litzateke harrigarria izango. Datarik gabeko hauen artean daude, hain zuzen, Ternuari buruzko gora-beherak eta *Zarrantza* izeneko untiaren penak kontatzen dizkiguten poemak.

Bertso hauek idatzi izan zireneko denboraren eremua zabal baldin bada, ez dira meharragoak gai, neurri, hedadura eta bestelako zertzeladei dagozkienak. Dena den, era honetako liburua hartarako lekurik aproposena ez delakoan eta aurrerago azalduko dudan lan batetan (12) horretaz zehatzago arituko naizenez, ez dut oraingoan bertso-bilduma honen deskribapen xehetarik eskainiko. Esan dezagun, hala ere, 30 poematik gora aurkitzen direla, guztira 450 ahapaldi baino gehiago osatzen dutelarik (13). Konta-poesia da gehien bat; sasoi hartako gertaera, pasadizo, eztabaida, gatazka, herri, pertsonaia eta abarren berri ematen diguten poemak. Sarritan, toki edo pertsona horiei buruzko aipamenak laudoriozko bertsoen bidez egiten zaizkigu: goraiatuen artean hor ditugu, esate baterako, Luis XIV.a, Luis XV.aren emaztea eta seme nagusia, Estaing kontea eta Jesuita euskaldunak, Kardaberaz, Meaker (sic) eta Mendiburu barne direla; edo Hendaia, Donibane Lohizune eta Orzaize herri goragarrien artean. Ez da falta, ordea, xaxatutako herririk edo trufaz trataturiko gairik: adibidez, Donibane bera, Jatsu eta Haltsu lehen kasuan edo Donostiako damen emigrazioa, alegiazko apezpikua eta andreen apaindura bigarreanean.

Bertso-neurriak aberatsegiak izan gabe, ez dira urri eta eskasak ere. Batzuk aski ezagunak gertatu arren (zortziko txiki antzekoak, koplak zaharrak, etab.), bada ahapaldi-mota bitxirik (*Oi Betlehem!* gabon-kantan erabiltzen denaren itxurako bat, esaterako). Bertsoen hedaduraz ere beste hainbeste esan daiteke: poema askok 8-12 ahapaldi inguru dituzte; baina arras luzeagoak ere baditugu (31 edo 65ekoak) eta oso laburrak ere bai (1 edo 2koak). Norenak edo nortzuenak? Egile ezagunak dituzte batzuek: Basusarriko Larregi (*D'Estaing Jaun Contearen Laudorioac*) edo Jean Robin donibandarra (*Luxe de 1808* eta beste zenbait). Poema askorentzat, ostera, ezinezkoa da oraingoz guraso jakin batzuk kausitzea.

Azkenik, argitalpenei buruz honoko hau aurrera daiteke: ez direla manuskrito honetako bertso-lan guztiak inoiz publikatu gabekoak. Arestian aipaturiko Larregi eta Robin-en bi poema horietaz gain (14), Julio Urkixo deustuar handiak Donibanez mintzatzen direnak —*Escala bastartaren contra eta Vive victor Donibane*— 1923ko RIEV aldizkarian, eta Ducos eta Claret jaunei buruzkoak hurrengo urtean kaleratu zituen (15). Azken hauek, Temuaz ari eta aski ezezagunak direnez, liburu honetan ezartzea agoki iruditu zaigu. Gainontzeko guztiak, hori baieztatzeko erabateko ziurtasunik ez badut ere, argitaragabekotzat jo ditzakegu.

este manuscrito se han publicado alguna vez. Además de esos dos poemas mencionados anteriormente de Larregi y Robin (14), el gran Julio Urkixo, nacido en Deusto, publicó los poemas —*Escara bastartaren contra eta Vive victor Donibane*— que tratan sobre Donibane en la revista RIEV de 1923, y el siguiente año publicó los poemas que hablan sobre los señores Ducos y Claret (15). Éstos últimos, dado que tratan sobre Terranova y son ampliamente conocidos, hemos considerado apropiado incluirlos en este libro. Se podría decir que el resto de poemas no han sido publicados, pese a no tener la certeza absoluta para realizar esta afirmación.

TRÍO SOBRE TERRANOVA

En el apartado histórico de este libro se explican muy bien las penas, el dolor y el sufrimiento que padecieron, las tormentas, las muertes y las destrucciones que sufrieron, la experiencia, las aventuras y los peligros que vivieron, la gente, la tierra y el mar que conocieron, la alegría, el placer y el sustento que lograron nuestros marineros en Terranova —en las idas y venidas—, entre otros muchos aspectos. Sin embargo, esta pesca fértil y peligrosa que perduró durante tantos años merecía al menos una pequeña referencia literaria. En Gipuzkoa y Bizkaia no se gestaron tales frutos literarios en esa época. Lapurdi, en cambio, originó una fuerte tradición literaria en el siglo XVII, mientras se arraigaba el bertsolarismo. Algunos autores de la Escuela de Sara publicaron bertsos y rezos compuestos para los marineros (16). A decir verdad desconocemos la época a la que pertenecen esos tres poemas que hablan sobre Terranova, pero sin duda nacen de esa tradición labortana de Sara-Donibane-Ziburu.

En cualquier caso, este conjunto de bertsos refuerza una faceta secular, no religiosa de esa tradición que hasta ahora se hace ver débilmente. De hecho, el objetivo principal de estos bertsos no es rezar o enseñar, sino simplemente relatar los trabajos y las dificultades de los marineros. Y hay que decir que se ha cumplido perfectamente ese objetivo. Pocas veces se nos ha ofrecido tal cantidad de bertsos sólidos y compactos en euskera sobre esos temas. A modo de ejemplo tenemos la estrofa redonda sobre el huracán:

117 *Furacanaren furia*
Ifernuco iduria
Satan beltac darabilla
untzien galtcen dabilla.

La furia del huracán
Se asemeja a los infleños,
La maneja el negro Satán,
Para hundir a los barcos.

Para poder apreciar mejor las características principales de estos poemas, realizaremos un pequeño análisis sobre su estructura y temas:

TERNUARI BURUZKO HIRUKOTEA

Gure itsasgizonek Ternua aldean —eta harunzko-honunzokotan— jasandako oinaze, neke eta penak, sufritutako ekaitz, heriotze eta hondamendiak, bizi izandako esperientzia, arrisku eta abenturak, ezaguturiko jende, ur eta lurak, lortutako poz, atsegin eta irabazpideak beste ¡non baino hobeto adierazten zaizkizue liburu honetako atal historikoan. Haatik, hainbeste urte iraundako arrantza-mota oparo eta perilltsuak merezi zuen erreferentzia literario xume bat, bederen. Gipuzkoa eta Bizkaian ez zen sasoi hartan horrelako literatur fruturik umatu. Lapurdik, aldiz, tradizio literario bortitza sortarazi zuen XVII. mendean, bertsogintzak ikaragarritzko indarra hartzen zuelarik. Sarako taldeko autore batzuek itsastarrentzat ondutako bertso eta otoitzak argitaratu zituzten (16). Egia esan, ez dakigu noizkoak diren Ternuaz ari diren hita poema hauek, baina Sara-Donibane-Ziburu-ko tradizio lapurtar horretatik jaiok, zalantzarik gabe.

